**UDALBATZAK 2010EKO APIRILAREN 30EAN EGINIKO OHIKO BILKURARI DAGOKION AKTA**

Errenteriako Udaleko bilkura-aretoan, bi mila hamarreko apirilaren hogeita hamarreko 08:30 zirela, lehenengo deialdian eta Juan Carlos MERINO GONZALEZ alkate jaunaren esanetara, ondoko zinegotziak elkartu dira:

- Joaquin ACOSTA PACHECO
- Mª del Mar CARRILLO GASCON
- Silvia ASTORGA MARTINEZ
- Joseba ECHARTE MARTIN
- Jose Angel RODRIGUEZ MEDINA
- Mikel DURAN GONZALO
- Luis Ignacio ANDRES JIMENEZ
- Juan Carlos MURUA ROMA
- Itsasne ALVAREZ DE EULATE LASA
- Luis Santiago ANGULO MARTIN
- Agustina Ana CANO CEREIJO
- Iñaki QUERALT COIRA
- Gorka MAUDES MIGELTORENA
- Maite PEÑA LOPEZ
- Venancio GRAVINA ESNAL (Gai Zerrendako 10. puntua ikusteko orduan bilkuratik alde egin du)
- Jose Manuel FERRADAS FREIJO
- Jose LEGORBURU AYESTARAN
- Lucia PERALTA RODRIGUEZ
- Mª Angeles BASTOS FERNANDEZ
- Joxe BURGOS VIÑARAS

Orobat bertan dago udal kontu-hartzaile Txema ARENZANA GARCIA jauna (Gai Zerrendako 11. puntua ikusten ari zirela bilkuratik alde egin du).

Bertan dago halaber, egintzaz fede emateko, Francisco Javier LESCA EZPELETA idazkari jauna.

**ACTA DE LA SESIÓN ORDINARIA DE PLENO DE LA CORPORACION CELEBRADA EL DIA 30 DE ABRIL DE 2010**

En la Casa Consistorial del Ayuntamiento de Errenteria, siendo las 08:30 horas del día treinta de abril del año dos mil diez, se reúnen en primera convocatoria, bajo la Presidencia del Alcalde Don Juan Carlos MERINO GONZÁLEZ, los siguientes Concejales:

- Joaquín ACOSTA PACHECO
- Mª del Mar CARRILLO GASCÓN
- Silvia ASTORGA MARTÍNEZ
- Joseba ECHARTE MARTÍN
- José Ángel RODRÍGUEZ MEDINA
- Mikel DURÁN GONZALO
- Luis Ignacio ANDRES JIMENEZ
- Juan Carlos MURUA ROMA.
- Itsasne ALVAREZ DE EULATE LASA
- Luís Santiago ANGULO MARTÍN
- Agustina Ana CANO CEREIJO
- Iñaki QUERALT COIRA
- Gorka MAUDES MIGUELTORENA
- Maite PEÑA LÓPEZ
- Venancio GRAVINA ESNAL. (Se hace constar que abandonó la Sesión durante el debate del punto nº 10).
- José Manuel FERRADÁS FREIJO
- José LEGORBURU AYESTARAN
- Lucía PERALTA RODRÍGUEZ
- Mª Ángeles BASTOS FERNÁNDEZ
- Joxe BURGOS VIÑARAS

Igualmente asiste el Interventor Municipal el Sr. Txema ARENZANA GARCÍA. (Se hace constar que abandonó la Sesión en el punto nº 11 del Orden del Día).

Asiste y da fe del Acto, el Secretario General D. Fco. Javier LESCA EZPELETA.

**1. Udalbatzaren 2010eko urtarrilaren 29ko ohiko bilkuraren akta irakurtzea eta onartzea, bidezkoa bada.**

Idazkariak 2010eko urtarrilaren 29ko ohiko bilkurari dagokion akta irakurritakoan.

Udalbatzak, aho batez,

**E R A B A K I D U**

- **Onartzea** 2010eko urtarrilaren 29ko ohiko bilkurari dagokion akta.

**1.- Lectura y aprobación en su caso del Acta correspondiente a la sesión ordinaria de fecha 29 de enero de 2010.**

Leída por el Secretario General el Acta correspondiente a la sesión ordinaria de fecha 29 de enero de 2010.

El Pleno de la Corporación, por unanimidad

**A C U E R D A**

- **Aprobar** el Acta correspondiente a la sesión ordinaria de fecha 29 de enero de 2010.

**2.- Ondorengo ebazpenen berri ematea: Alkatearenak (317 zk.tik 474 zk.ra, biek barne), Zinegotzi-ordezkarienak (466 zk.tik 585 zk.ra, biek barne) eta Tokiko Gobernu Batzordearenak.**

Idazkariak Alkateak (317 zk.tik 474 zk.ra, biek barne), Zinegotzi-ordezkariek (466 zk.tik 585 zk.ra, biek barne) eta Tokiko Gobernu Batzordeak emaniko ebazpenen berri eman du.

Udalbatza jakinaren gainean geratu da.

**2.- Cuenta de Resoluciones del Alcalde (nºs. 317 al 474, ambos incluidos), de Concejales Delegados (nºs. 466 al 585, ambos incluidos) y de la Junta de Gobierno Local.**

Se da cuenta de las Resoluciones del Alcalde (nºs. 317 al 474, ambos incluidos), de Concejales Delegados (nºs. 466 al 585, ambos incluidos) y de la Junta de Gobierno Local.

El Pleno queda enterado.

**3. Alkatetzaren 2010-03-30eko dekretuaren berri ematea, Luis Ignacio Andres Jimenez jauna alkateorde, Gobernu Batzarreko partaide, Trafiko eta Garraio Saileko delegatu eta batzordeburu dedikazio partzialarekin izendatzeko, eta dedikazio bereziarekin zinegotzia izendatzeko.**

Idazkariak ondoko Alkatetza-dekretuaren berri eman du:

**3.- Dar cuenta del Decreto de Alcaldía de fecha 30-03-2010 por el que se nombra a D. Luís Ignacio Andrés Jiménez Teniente de Alcalde y miembro de la Junta de Gobierno, delegado del Área de Tráfico y Transportes y Presidente de dicha Comisión con dedicación parcial, y nombramiento de Concejal con dedicación exclusiva.**

Se da cuenta del siguiente decreto de Alcaldía:



C.I.F. P-2007200-E Herriko Plaza z/g. • Tfnoa: 943 449601 - Fax 943 449650 • 20100 ERRENTERIA(Gipuzkoa) • www.errenteria.net

"Jesus Oficialdegui Ruiz jaunak, 2010eko urtarrilaren 29ko osoko bilkuran zinegotzi-kargua utzi eta 2010eko martxoaren 26ko osoko bilkuran Luis Ignacio Andres Jimenez jaunak hartuta eta gero,

"Tras la renuncia a su cargo de Concejal de D. Jesús Oficialdegui Ruiz en Pleno de 29 de enero de 2010 y la posterior toma de posesión de D. Luis Ignacio Andrés Jiménez en Pleno de 26 de marzo de 2010.

Alkatetza honek, legeak ematen dizkidan eskumenak baliatuta, ondoko erabakiak hartu ditu.

Esta Alcaldía, en el uso de las atribuciones que legalmente tiene conferidas adopta los siguientes

**ERABAKIAK**

**ACUERDOS**

**Lehenengo.** Luis Ignacio Andres Jimenez jauna **izendatzea Alkateordea eta Gobernu Batzarreko partaidea.**

**Primero**.- **Nombrar** a D. Luis Ignacio Andrés Jiménez, **Teniente de Alcalde y miembro de la Junta de Gobierno**.

**Bigarren**. Luis Ignacio Andres Jimenez jauna **izendatzea** Trafiko eta Garraio Saileko eta Batzordeko horretako presidente.

**Segundo.- Nombrar delegado del Area de Tráfico y Transportes**, **así como presidente de dicha Comisión** a D. Luis Ignacio Andrés Jiménez.

**Hirugarren**.

- **%60ko zatiko arduraldia izendatzea** Luis Ignacio Andres Jimenez zinegotziari.

- **Erabateko arduraldia izendatzea** Joseba Echarte Martin zinegotziari.

Liberazio hauek Udalean dituzten eginkizunekin zurituta geratzen dira.

**Tercero.-**

- **Nombrar Concejal con dedicación parcial** a Luis Ignacio Andrés Jiménez, con un porcentaje de dedicación del **60%**.

- **Nombrar Concejal con dedicación exclusiva** a D. Joseba Echarte Martín.

Estas liberaciones, se justifican en la necesaria dedicación a sus respectivas tareas municipales.

**Laugarren.** Erabaki honen berri ematea interesdunei, hala nola Trafiko eta Garraio Saileko arduradunei, Udal Kontu-hartzailetzari eta Giza Baliabide Saialari, hain zuzen, jakin eta sortu beharreko ondorioak sor ditzan.

**Cuarto**.- Notificar la presente resolución a los interesados, dando igualmente conocimiento de la misma a los responsables del Area de Tráfico y Transportes, a la Intervención Municipal de Fondos y al departamento municipal de Recursos Humanos para su conocimiento y efectos.



C.I.F. P-2007200-E Herriko Plaza z/g. • Tfnoa: 943 449601 - Fax 943 449650 • 20100 ERRENTERIA(Gipuzkoa) • www.errenteria.net

**Bosgarren.** Izendapen hauek argitaratzea Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean eta Udaleko iragarki-oholean, eta berorren berri ematea Udalbatzak egingo duen lehenengo osoko bilkuran.

**Quinto**.- Publicar los presentes nombramientos, tanto en el Boletín Oficial de Gipuzkoa como en el Tablón de Edictos de la Casa Consistorial, dándose cuenta al Pleno en la primera sesión ordinaria que celebre.

**Seigarren**. Ebazpen honek ondorioak sinatzen den egunetik sortuko ditu, beti ere, izendatuek ezer alegatzen ez badute, karguak onartzen dituztela esan nahiko duelarik.

**Sexto.-** La presente resolución **surtirá efectos desde la fecha de la firma**, entendiendo que los nombrados aceptan sus cargos si no alegan nada al contrario.

Errenteriako Alkateak agindu, eta nire aurrean, sinatzen duena 2010eko martxoaren 30ean. Ziurtatzen dut".

Lo manda y firma el Alcalde en Errenteria, a 30 de marzo de 2010, ante mí el secretario que doy fe".

Udalbatza jakinaren gainean geratu da.

El Pleno queda enterado.

**4. Socialistas Vascos-Euskal Sozialistak taldeko partaideek 2010eko martxoaren 26an eginiko idazkiaren berri ematea, Taldeko bozeramaile Joaquin Acosta Pacheco dela jakinaraziz.**

**4.- Dar cuenta del escrito de fecha 26 de marzo de 2010 presentado por los miembros del Grupo de Concejales Socialistas Vascos-Euskal Sozialistak por el que notifica que Joaquín Acosta Pacheco es el portavoz del Grupo.**

Idazkariak Socialistas Vascos-Euskal Sozialistak taldeko partaideek 2010eko martxoaren 26an eginiko idazkiaren berri eman du. Bertan, Taldeko bozeramaile Joaquin Acosta Pacheco dela jakinarazten dute.

Se da cuenta al Pleno de la Corporación del escrito de fecha 26 de marzo de 2010 presentado por los miembros del Grupo de Concejales Socialistas Vascos-Euskal Sozialistak por el que notifica que Joaquín Acosta Pacheco es el portavoz del Grupo a partir del día 26 de marzo de 2010.

Udalbatza jakinaren gainean geratu da.

El Pleno queda enterado.

**5. Socialistas Vascos-Euskal Sozialistak taldeko partaideek 2010eko martxoaren 29an eginiko idazkiaren berri ematea, hainbat partaide batzordeetan aldaketak egingo dituztela adieraziz.**

**5.- Dar cuenta del escrito del Grupo de Concejales Socialistas Vascos-Euskal Sozialistak de fecha 29 de marzo de 2010 por el que se notifican diversas modificaciones en la adscripción a comisiones municipales de sus miembros.**

Idazkariak Socialistas Vascos-Euskal

Se da cuenta al Pleno del escrito del Grupo



C.I.F. P-2007200-E Herriko Plaza z/g. • Tfnoa: 943 449601 - Fax 943 449650 • 20100 ERRENTERIA(Gipuzkoa) • www.errenteria.net

Sozialistak taldeko partaideek 2010eko martxoaren 29an eginiko idazkiaren berri eman du. Bertan, hainbat partaide batzordeetan aldaketak egingo dituztela adierazten dute:

de Concejales Socialistas Vascos-Euskal Sozialistak de fecha 29 de marzo de 2010 por el que se notifican las siguientes modificaciones en la adscripción a comisiones municipales de sus miembros:

- Luis Ignacio Andres Jimenez **izendatzea** Lehendakaritza eta Barne-antolaketako batzordeko bokala.

- **Nombrar vocal** en la Comisión de Presidencia y Régimen Interior a Luís Ignacio Andrés Jiménez.

- Luis Ignacio Andres Jimenez **izendatzea** Hirigintza batzordeko bokala.

- **Nombrar vocal** en la Comisión de Urbanismo a Luís Ignacio Andrés Jiménez.

- Luis Ignacio Andres Jimenez **izendatzea** Ingurumena batzordeko bokala.

- **Nombrar vocal** en la Comisión de Medio Ambiente a Luís Ignacio Andrés Jiménez.

- Luis Ignacio Andres Jimenez **izendatzea** Ogasuna eta Ekonomia Garapen batzordeko ordezko bokala.

- **Nombrar vocal suplente** en la Comisión de Hacienda y Desarrollo Económico a Luís Ignacio Andrés Jiménez.

- Luis Ignacio Andres Jimenez **izendatzea** Kultura batzordeko ordezko bokala.

- **Nombrar vocal suplente** en la Comisión de Cultura a Luís Ignacio Andrés Jiménez.

- Luis Ignacio Andres Jimenez **izendatzea** Euskara batzordeko ordezko bokala.

- **Nombrar vocal suplente** en la Comisión de Euskera a Luís Ignacio Andrés Jiménez.

Udalbatza jakinaren gainean geratu da.

El Pleno queda enterado.

**6. Alkatetzaren idazkiaren berri ematea, Pasaiako Portuko Agintaritzaren Eskumendun Organoari jakinaraziz Udal honetako ordezkaria Alkatea dela esanez.**

**6.- Dar cuenta de la comunicación de Alcaldía al Organo Competente de la Autoridad Portuaria de Pasajes notificando que el representante de este Ayuntamiento en la misma es el Alcalde.**

Alkatetzak 2010eko apirilaren 27an ondoko ebazpena eman zuen:

Se da cuenta de la siguiente disposición de Alcaldía de fecha 27 de abril de 2010:

“Errenteriako Udalak Pasaiako Portuko Agintaritzan izango duen ordezkariaren izendapena.

“Nombramiento de vocal representante del Ayuntamiento de Errenteria en la Autoridad Portuaria de Pasajes



C.I.F. P-2007200-E Herriko Plaza z/g. • Tfnoa: 943 449601 - Fax 943 449650 • 20100 ERRENTERIA(Gipuzkoa) • www.errenteria.net

Eusko Jaurlaritzaren Etxebizitza, Herrilan eta Garraio Saileko Zerbitzuen zuzendariak 2010eko apirilaren 15ean Udal honi jakinarazio dio 2010eko ekainaren 13an amaituko dela Udalbatzarrak 2007ko uztailaren 26ko osoko bilkuran erakunde hartarako eginiko bokal-izendapenaren epea.

Examinada la comunicación de fecha 15 de abril de 2010 de la Director de Servicios del Departamento de Vivienda, Obras Públicas y Transportes del Gobierno Vasco poniendo en conocimiento de este Ayuntamiento que el próximo día 13 de junio de 2010 va a caducar el nombramiento efectuado por el Pleno municipal de 26 de julio de 2007 de vocal representante en aquella institución.

Kontuan izanik osoko bilkura hartan hartutako erabakiaren xedea ordezkaritza Alkatetzari ematea zela, eta Tokiko Araubide Oinarrien Legearen 21.1.b artikuluan xedatutakoaren arabera, Alkatea da Udalaren berezko ordezkaria.

En la consideración de que la intención del acuerdo adoptado en Pleno fue el de conferir a la Alcaldía dicha representación, de conformidad a lo dispuesto en el artículo 21.1.b de la Ley de Bases del Régimen Local por el que el Alcalde es representante nato del Ayuntamiento.

Legeak ematen dizkidan eskumenak baliatuz,

En el uso de las atribuciones que la Ley me confiere

**EBATZI DUT**

**DISPONGO**

Jakinaraztea Eusko Jaurlaritzaren Etxebizitza, Herrilan eta Garraio Saileko Zerbitzuen zuzendariari Errenteriako Udaleko ordezkaria Alkatea dela".

Trasladar al Departamento de Vivienda, Obras Públicas y Transportes del Gobierno Vasco de la referida circunstancia para su conocimiento y a ese efecto manifestar que la representación de este Ayuntamiento de Errenteria se halla conferida a la Alcaldía".

Udalbatza jakinaren gainean geratu da.

El Pleno queda enterado.

**7. Proposamena: San Markos Mankomunitateko bokal ordezkoa izendatzea.**

**7.- Propuesta de nombramiento de vocal suplente en la Mancomunidad de San Marcos.**

Alkatetzak mozioa aurkeztu du, hain zuzen Udaleko ordezkariak udalaz kanpoko erakundeetan ordezkatzeko Udalbatzak erabaki dezan.

Vista la Moción que presenta la Alcaldía para someterla a la decisión del Pleno en relación con representantes de la Corporación ante entidades supramunicipales.

Ondoren, mintzatu dira:

Se producen las siguientes intervenciones:



C.I.F. P-2007200-E Herriko Plaza z/g. • Tfnoa: 943 449601 - Fax 943 449650 • 20100 ERRENTERIA(Gipuzkoa) • www.errenteria.net

* Murua jaunak (atxiki gabeko zinegotzia) esan du Udalbatzaren ordezkaritzaz ari direla hitz egiten, eta, beti bezala, eurek argi utzi nahi dute ordezkapenek Udalbatzaren proportzio mantendu beharko luketela. Horregatik, beti eskaera berdina egiten dute, nahiz eta gero Gobertu Taldearen aldeko erantzunik ez duten jasotzen. Gainera, kasu honetan zerbait gehiago ere badute adierazteko, eta zalantzarik ez izateko erdaraz esango du.

* Toma la palabra el Sr. Murua (Concejal no Adscrito) y manifiesta en euskera que están hablando de la representación del Ayuntamiento, y como siempre, desean dejar claro que las representaciones tendrían que mantener la proporción de la Corporación. Por dicho motivo siempre efectúan la misma petición, aunque luego no reciban respuesta alguna por parte del Equipo de Gobierno. Además, en esta ocasión tienen algo más para decir, y para que no haya dudas lo manifestará en castellano.

Gazteleraz, beraz, esan du Andres jaunak (Socialistas Vascos-Euskal Sozialistak) onartu beharko duela zaila dela ulertzea bera izango dela Udalbatzaren ordezkaria herri honetan herritar bakar batek ere bozkatu gabe. Gainontzeko zinegotziak, bateren bat “atzeko atetik sartu bada ere”, herriko herritarrek bozkatu dietelako daude bertan, eta hortaz, euren interesak defendatzeko zilegitasun osoa dute, hain zuzen ordezkatzeko hautatu dituztelako. Andres jauna (Socialistas Vascos-Euskal Sozialistak), aitzitik, atzeko atetik sartu da eta alderdi sozialistaren udal taldea bakarra ordezkatzen du. Gainera, Andres jaunak onartu beharko du, lehen begiratu batean, bere hautaketak gainontzeko zinegotziak gutxiesten dituela, izan ere, ondoriozta baitaiteke —herriko herritarren bozka bakar bat ere jaso ez duelako— herritarrek hauteskunde egunean hartu zuten erabakia gutxiesten duela. Horrezaz gain, gainontzeko zinegotzi bakar bat ere ez dela gai ordezkaritza hori eramateko dirudi. Aldiz, Andres jaunak (Socialistas Vascos-Euskal Sozialistak) esaten du Udalbatza osoa ordezkatuko duela. Hortaz, bere kezka logikoa dela deritzo, izan ere, gai horretan bere gaitasuna ez badu erakusten, esan beharko zukeen —karguaren posesioa hartu besterik ez duelako egin— afera hauetan ez duela inolako eskarmenturik. Are gehiago, badirudi politikarako interesa berantiarra duela, besteak beste, lehen esan duen moduan, ez delako inongo hautes-zerrendatan

Sigue en castellano y dice que el Sr. Andrés (Socialistas Vascos-Euskal Sozialistak) tendrá que admitir que le resulte difícil de entender que vaya a ser él el representante de esta Corporación cuando no ha recibido ningún voto de ningún ciudadano de este municipio. El resto de concejales, aunque alguno también se ha “colado por esa puerta”, están aquí porque han recibido el refrendo de los vecinos de este municipio, por lo que están legitimados para defender sus intereses, y que los han elegido para que los representen. Al Sr. Andrés (Socialistas Vascos-Euskal Sozialistak), añade, se le ha metido “por la puerta de atrás” y representa exclusivamente al grupo municipal del partido socialista. Continúa diciendo que el Sr. Andrés tendrá que admitir que, a simple vista, su elección menosprecia al resto de los concejales, ya que cabe deducir que, si no está legitimado porque no tiene los votos de ningún vecino de este municipio, menosprecia la decisión que éstos tomaran el día de las elecciones. Además, parece ser que ninguno del resto de los concejales está capacitado para llevar adelante esa representación. El Sr. Andrés (Socialistas Vascos-Euskal Sozialistak), dice, va a representar al pleno de esta Corporación y es lógica su preocupación porque si éste no demuestra su capacitación en esta materia, tendría que decir que su inexperiencia en estos asuntos es absoluta ya que acaba de tomar posesión del cargo. Es más, su interés por la política

azaltzen. Horregatik du berak kezka, zeren eta, bere ibilbide politikoa ez badu demostratzen, nahiz eta bera deskuidatuta egon eta demostra dezakeen, bere aburuz, bere hautaketak Udalbatzako gainontzeko zinegotzientzako gutxiespena suposatzen du.

parece tardía porque, como ya ha dicho antes, no figura en ninguna lista electoral. Por ese motivo su preocupación, porque si no demuestra su trayectoria política, aunque podría estar equivocado y demostrarla, entiende que su elección también supone un menosprecio al resto de concejales de esta Corporación.

* Merino alkate jaunak (Socialistas Vascos-Euskal Sozialistak) adierazi du aurreko mintzaldi osoan, Murua jaunak (atxiki gabeko zinegotzia) eginikoan alegia, bozkak eta ordezkaritza popularra baloratu dela. Gainontzerakoa, uste du, hori tokatzen delako, gidoiak agintzen dioena dela. Edonola ere, bere aburuz, Murua jaunak gauza gehiegi aurresuposatzen du. Gaineratu duenez, han ordezkaritza popularra gehiegitan eta bide askoetatik aldarrikatu izan da, eta horregatik, ez du ulertzen zergatik ez litekeen orain egin. Baliotasunari dagokionez, berriz, uste du bide askoetatik egin litekeela, hots, ez soilik hauteskunde batzuetan zerrenda baten joanda. Edonola izanda ere, Legeak agintzen du, eta eurek, kasu honetan, guztietan bezala, Legeari jarraitu diote. Legeak aurreikusten du alderdi edo elkarte baten zerrendan joan ez den pertsona bat, kasu batzuetan, zinegotzi izendatzeko aukera. Jarraian, gogorarazten du, Lege hori, politikaren arauak gainditzen dituzten egoera zenbaitetan —begi bistakoa da indarkeriaz ari dela— zerrenda politiko zenbaiten ordezkaritzaren mesedetan edo babestearen ondorio dela. Egoera horrek eraman zuen legegileak agindu hauek agindu zitzan, zerrenda batean joan gabe pertsona bat zinegotzi izendatzea ahalbidetzen duena, hain zuzen ere. Amaitzeko, esan du izendapena ordezko bokal izateko dela, eta kontuan izanik gehiengoaren eta gutxiengoaren arteko jokoa, inguruko udalbatza guztietan egiten den bezala, han gauza bera egin dutela.

* El Alcalde, Sr. Merino (Socialistas Vascos-Euskal Sozialistak) manifiesta que de toda la intervención anterior valora que el Sr. Murua (Concejal no Adscrito) valore la representación popular y los votos. Cree que el resto de la intervención es lo que le pide el guión, es lo que toca. Lógicamente no puede hacer otra intervención. De todas maneras, añade, el Sr. Murua presupone con una cierta osadía, demasiadas cosas. Añade que aquí la representación popular se está reivindicando muchas veces y por muchos cauces, por lo que no entiende por qué ahora no se podría hacer. En cuanto a la valía o no valía señala que se puede hacer por muchos caminos, no solo a través de una lista en unas elecciones. En cualquiera de los casos, dice, es lo que marca la Ley y ellos se atienen en este caso, como en todas las ocasiones, a lo que marca la Ley. La Ley prevé y facilita que una persona que no haya ido en una lista de un determinado partido o agrupación pueda ser nombrada, en determinadas ocasiones, como concejal. A continuación recuerda que esa Ley es consecuencia de intentar favorecer o proteger la representación popular en determinadas listas políticas dadas ciertas situaciones que rebasan las normas de la política –se está refiriendo lógicamente al terrorismo y demás-, lo que hizo que el legislador dictara esas normas que permiten el nombramiento de una persona como concejal sin haber ido en una lista determinada. Para finalizar, comenta que la propuesta es el nombramiento como vocal suplente y que, teniendo en cuenta el juego de las mayorías y las minorías, así como que es lo que hace cualquier corporación del entorno al día de hoy, aquí se hace igual.

* Murua jaunak (atxiki gabeko zinegotzia) esan du, bera mintzatu denean, saihestu duela uneoro legezkotasunaz hitz egitea. Errekonozitzen du Andres jauna (Socialistas Vascos-Euskal Sozialistak) han bada, Legeak ahalbidetzen duelako dela. Bestela, ez litzateke egongo, hori argi dago, gaineratu du. Aldiz, denek badakite legeek ekimen politikoei erantzuten dietela, eta Andres jauna (Socialistas Vascos-Euskal Sozialistak) han egotea bezain legezkoa zela milaka euskaldun eta espainol herritar atxilotzea intsumisoak zirelako. Hortaz, uste du legalitateak ez duela beti erantzuten interes eta ekimen politikoei.

* El Sr. Murua (Concejal no Adscrito) indica que en su intervención ha evitado, en todo momento, hablar de legalidades. Reconoce que si el Sr. Andrés (Socialistas Vascos-Euskal Sozialistak) está aquí, es porque la Ley lo permite; si no, no podría estar, eso es una evidencia. Ahora, todos saben que las leyes responden a impulsos políticos, y que tan legal es que el Sr. Andrés (Socialistas Vascos-Euskal Sozialistak) esté hoy aquí, como, en su época, la detención de miles de ciudadanos vascos y españoles por su insumisión. La legalidad, como siempre, responde a intereses o impulsos políticos.

* Merino alkate jaunak (Socialistas Vascos-Euskal Sozialistak) esan du ona dela Legeak denen onura, interes eta herritarrei erantzutea.

* El Alcalde, Sr. Merino (Socialistas Vascos-Euskal Sozialistak) manifiesta que es bueno que la Ley responda a la conveniencia e interés común y a la ciudadanía.

Mintzaldiak amaitutakoan.

Finalizadas las intervenciones.

Udalbatzak, gehiengoz, aldeko 13 botorekin (Socialistas Vascos-Euskal Sozialistak, EAJ/PNV, PP eta Alkarbide), aurkako 6 boto (atxiki gabeko zinegotziak) eta 2 abstentzioz (Ezker Batua-Berdeak),

El Pleno de la Corporación, por mayoría, con 13 votos a favor (Socialistas Vascos-Euskal Sozialistak, EAJ/PNV, PP y Alkarbide), 6 votos en contra (Concejales no Adscritos) y 2 abstenciones (Ezker Batua-Berdeak)

**E R A B A K I D U**

**A C U E R D A**

- Ondoko izendapena egitea:

- Efectuar el siguiente nombramiento:

San Markos Mankomunitaterako:

Mancomunidad de San Marcos:

Ordezko bokalak:

Vocal Suplente:

- Luis Ignacio Andres Jimenez.

Luis Ignacio Andrés Jiménez

**8. Proposamena: udal funtzionarioak eskaturiko bateragarritasuna ezeztatzea.**

**8.- Propuesta de desestimación de compatibilidad solicitada por funcionaria municipal.**



C.I.F. P-2007200-E Herriko Plaza z/g. • Tfnoa: 943 449601 - Fax 943 449650 • 20100 ERRENTERIA(Gipuzkoa) • www.errenteria.net

Begoña Bueno Barranco udal funtzionarioak otsailaren 23an idatzi bat aurkeztu zuen. Bertan, zuzenbide-eremuan jarduera pribatuak egin ahal izateko bateragarritasuna eskatzen du.

Visto el escrito presentado por la funcionaria municipal Dña. Begoña Bueno Barranco con fecha 23 de febrero del actual, por el que solicita se le conceda la compatibilidad para desempeñar actividades privadas en el ámbito jurídico.

GGBBko AOTk aurkako txostena egin du, espedientean jasota dagoena. Bertan, besteak beste, adierazten du interesdunak lana egiten duen lanpostuak izendatuta daukan berariazko osagarriak gainditzen duela —hiruhilekoak kenduta ere— oinarrizko ordainsarien %30.

Visto el informe desfavorable emitido por la TAG de RRHH que consta en el expediente en el que se señala, entre otras cuestiones, que el complemento específico que tiene asignado el puesto de trabajo que desempeña la interesada supera el 30% de sus retribuciones básicas, excluido el concepto trienios.

Kontuan izanik 53/1984 Legearen, abenduaren 26koa, 16. artikuluan xedatutakoa, Herri Administrazioen zerbitzuko langileen Bateraezintasun Arauei buruzkoa.

Considerando lo dispuesto en el art. 16 de la Ley 53/1984 de 26 diciembre, de Incompatibilidades del Personal al Servicio de las Administraciones Públicas.

Halaber AJAren 50.9 artikuluaren arabera eta 53/1984 Legearen 14. artikuluari jarraiki, erabakia hartzeko eskumena Udalbatzari dagokio.

Considerando que conforme al art. 50.9 del ROF y el art. 14 de la Ley 53/1984 la adopción de este acuerdo es competencia del Pleno de la Corporación.

Lehendakaritza eta Barne-antolaketako batzordearen proposamena ikusitakoan.

Vista la propuesta de la Comisión de Presidencia y Régimen Interior.

Mintzatu dira:

Se producen las siguientes intervenciones:

* Peña andreak (EAJ/PNV) adierazi du proposamen hori batzordera iritsi zenean arlo horretako AOTren txostenarekin zihoala. Bere ustez, txostena arrazoitua zegoen, baina, batzordean eman zuen botoa gaur eutsiko badio ere, batzorde hartan mahai gainean ipini ziren izaera bereko baina tratamendu ezberdina eman beharreko beste jarraibide batzuk. Horregatik, uste du, Lehendakaritza eta Barne-antolaketako batzordekoa mahai gainean dagoenez, gai hori abordatu behar dela.

* Toma la palabra la Sra. Peña (EAJ/PNV) y manifiesta que cuando esta propuesta llegó a la comisión iba con un informe de la TAG del área. Entiende que el informe estaba fundamentado, pero, aunque va a mantener el voto que emitió en la comisión informativa, en aquella comisión se pusieron sobre la Mesa otras instrucciones de idéntica naturaleza con diferentes tratamientos. Por ello considera, ya que está encima de la Mesa de la Comisión de Presidencia y Régimen Interior, que toca abordar este tema.



C.I.F. P-2007200-E Herriko Plaza z/g. • Tfnoa: 943 449601 - Fax 943 449650 • 20100 ERRENTERIA(Gipuzkoa) • www.errenteria.net

* Angulo jaunak (atxiki gabeko zinegotzia) esan du legeak esaten duenaz aparte, etika aldetik ere, iruditzen zaie funtzionario batek ondo ordaintutako lana baldin badu, eta gainera, baldintza ezin hobeagotan, ez dute, inola ere, ikusten beste lanetan aritu behar duenik. Gainera, ez kasu honetan bakarrik, euren aburuz, kasu guztietan aplikatu beharko litzateke legea. Alegia, lan bat baldin baduzu, horri dedikatu behar duzun guztia eta kito. Ez dute uste aprobetxatu behar denik legeak uzten dituen zirrikituak gauza batzuek eta besteak egiteko. Horregatik, eurek proposamenaren alde bozkatuko dute.

* El Sr. Angulo (Concejal no Adscrito), en euskera, manifiesta que aparte de lo que diga la ley, desde la ética, les parece que si un funcionario dispone de un trabajo bien remunerado, y además, en unas condiciones inmejorables, no ven, de ninguna de las maneras, que tenga que estar trabajando en otros quehaceres. Además, no solamente en este caso, sino que consideran que habría que aplicar la ley en todos ellos. Creen, en definitiva, que si se dispone de un trabajo se tiene dedicar al mismo en su totalidad, y no aprovecharse de las posibles rendijas que deje la ley. Por dicho motivo, votarán a favor de la propuesta.

* Merino alkate jaunak (Socialistas Vascos-Euskal Sozialistak), aitzitik, uste du legeak beste zerbait esan beharko zukeela, alegia, edozein langilek bere lanpostuko lanak eta agintzen zaizkionak egiten baditu, beste lan batekin konpatibilizatu dezakeela, eta beraz, langileak, hala nahi izanez gero, egin. Hori bere iritzia da, baina berak arauaren baitan jardungo du. Arauak dioena dio, eta Langileria Saileko AOTk esaten du ez dela bidezkoa konpatibilitatea onartzea. Amaitzeko, esan du, beste kasuren bat emango balitz, eta berori ikustea nahiko balu, bada, eska beza eta jardun behar duten moduan jardungo dutela.

* El Alcalde, Sr. Merino (Socialistas Vascos-Euskal Sozialistak) piensa, en cambio, que la Ley debería decir otra cosa, de tal manera que no le parecería nada extraño que, cualquier trabajador, si hubiera la garantía de que cumple en su puesto de trabajo y con las tareas que tiene encomendadas, pudiera compatibilizar ese trabajo con otro, cosa que debería ser a criterio de cada cual. Esa es su opinión personal, pero, se tiene que atener a la norma. La norma dice lo que dice y, el informe de la TAG de Personal dice que no procede estimar la compatibilidad. Para finalizar indica que si hubiera alguna otra situación y se quisiera tratar la misma, solicítese o actúese como proceda.

Mintzaldiak amaitutakoan.

Finalizadas las intervenciones.

Udalbatzak, aho batez,

El Pleno de la Corporación, por unanimidad,

**E R A B A K I D U**

**A C U E R D A**

1. Eskaerari **ezetza ematea**, eta ondorioz, Begoña Bueno Barranco udal funtzionarioak bateraezintasuna du arlo juridikoan jarduera pribatuak egiteko.

**1.- Desestimar** la solicitud y, en consecuencia, declarar la incompatibilidad para que la funcionaria municipal Dña. Begoña Bueno Barranco desempeñe actividades privadas en el ámbito jurídico.



C.I.F. P-2007200-E Herriko Plaza z/g. • Tfnoa: 943 449601 - Fax 943 449650 • 20100 ERRENTERIA(Gipuzkoa) • www.errenteria.net

2. Erabaki honen **berri ematea** interesdunari, betiere tarteratu ditzakeen helegiteen berri emanez.

**2.- Notificar** el presente acuerdo a la interesada, significando los recursos que proceden contra el mismo.

**9. Proposamena: 381/2008 administrazioarekiko auzi-errekurtsoan emaniko epaia exekutatzea.**

**9.- Propuesta de ejecución de la sentencia dictada en el recurso contencioso-administrativo nº 381/2008.**

Donostiako 1 zk.ko Administrazioarekiko Auzien Epaitegiak aurtengo urteko martxoaren 4an fede eman zuen administrazioarekiko auzi-errekurtsoa exekutatzeko, 381/2008 zenbakia sarrera duena eta laburturiko prozedurari jarraituz burutu dena. Erreklamazio hartan, administrazio isiltasunagatik, Udaltzaingoko 11 partaideek inpugnatu zuten 2007ko Estatuko Aurrekontu Orokorreko Lege Orokorrean %1 aurreikusitako igoera ez aplikatzea.

El Juzgado de lo contencioso-Administrativo nº1 de Donostia-San Sebastián ha remitido con fecha 4 de marzo del actual, testimonio de sentencia estimatoria para su ejecución, en el recurso contencioso-administrativo registrado con el número 381/2008 y seguido por el procedimiento abreviado, en el que se impugna la desestimación por silencio administrativo de la reclamación conjunta efectuada por 11 miembros de la Policía Local para que se les aplique el incremento del 1% de la masa salarial prevista en la Ley General de Presupuestos Generales del Estado (LPGE) para el año 2007.

2010eko otsailaren 25eko epai finkoak errekurtsogileei aitortzen die %1eko igoera jasotzeko eskubidea, abenduaren 28ko 42/2006 Legearen, 2007ko Estatuto Aurrekontu Orokorrena, 21.4 artikuluan aurreikusia.

La citada sentencia de fecha 25 de febrero de 2010, que es firme, declara el derecho de los recurrentes a percibir el incremento del 1% previsto en el artículo 21.4 de la Ley 42/2006, de 28 de diciembre, de Presupuestos Generales del Estado para 2007.

Giza Baliabide Saileko teknikariak hilaren 19an gaiari buruzko txostena egin du.

Visto el informe de la técnico de Recursos Humanos de fecha 19 de los corrientes.

Era berean, Udal Kontu-hartzaileak 2010eko apirilaren 27an eginikoa.

Visto el informe del Interventor Municipal de fecha 27 de abril de 2010.

Halaber, Idazkari Nagusiak 2010eko apirilaren 29an eginiko txostena.

Visto el informe del Secretario General de fecha 29 de abril de 2010.

Uztailaren 13ko 29/1998 Legearen 103. eta ondorengo artikuluetan xedatutakoari jarraiki, Administrazio Auzi Jurisdikzioa arautzen duena.

En consideración a lo dispuesto en el artículo 103 y siguientes de la Ley 29/1998, de 13 de julio, reguladora de la Jurisdicción Contencioso



C.I.F. P-2007200-E Herriko Plaza z/g. • Tfnoa: 943 449601 - Fax 943 449650 • 20100 ERRENTERIA(Gipuzkoa) • www.errenteria.net

Administrativa.

Lehendakaritza eta Barne-antolaketako batzordeak 2010eko apirilaren 22ko proposamena ikusitakoan.

Vista la propuesta de la Comisión de Presidencia y Régimen Interior de fecha 22 de abril de 2010.

Mintzatu dira:

Se producen las siguientes intervenciones.

* Merino alkate jaunak (Socialistas Vascos-Euskal Sozialistak) esan du, batzordeak emaniko irizpenaz gain, badagoela talde sozialistaren boto partikular bat.

* Toma la palabra el Alcalde, Sr. Merino (Socialistas Vascos-Euskal Sozialistak) y manifiesta que, además del dictamen de la comisión, hay un voto particular del grupo socialista.

Idazkariak Socialistas Vascos-Euskal Sozialistak taldearen boto partikularra irakurri du. Honek zera dio:

Leído por el Secretario General el siguiente voto particular formulado por Grupo Socialistas Vascos-Euskal Sozialistak:

1. **Burutzea** Donostiako 1 zk.ko Administrazioarekiko Auzien Epaitegiak 2010eko otsailaren 25ean prozedura laburrean emaniko 381/2008 zk.ko epai finkoa.

**1º.- Llevar a puro y debido efecto** lo dispuesto en la Sentencia firme del Juzgado de lo Contencioso-Administrativo nº 1 de Donostia-San Sebastián en el procedimiento abreviado nº 381/2008 de fecha 25 de febrero de 2010.

2. **Epai hori gauzatzearren** errekurtsogileei ordaintzea Estatuko Aurrekontu Orokorreko Legean 2007rako adierazitako soldata-masaren %1. alegia:

**2º.- En aplicación de dicha Sentencia** abonar a los recurrentes el 1% de la masa salarial señalada en la Ley de Presupuesto Generales del Estado para el año 2007 que supone las cantidades siguientes:

- Agustin Azpeitia Oyarzabal jaunari: 296 €

- Jon Osa Larrarte jaunari: 312 €

- Miren Edurne Irureta Padrones andreari: 332 €

- Jose Gabriel Riveira Quintana jaunari 375 €

- A D. Agustín Azpeitia Oyarzabal: 296 €

- A D. Jon Osa Larrarte: 312 €

- A Dña. Miren Edurne Irureta Padrones: 332 €

- A D. José Gabriel Riveira Quintana: 375 €



C.I.F. P-2007200-E Herriko Plaza z/g. • Tfnoa: 943 449601 - Fax 943 449650 • 20100 ERRENTERIA(Gipuzkoa) • www.errenteria.net

- Fernando Baz Artola jaunari: 376€

- Bernardo Paquico Marichalar jaunari: 409 €

- Salvador Caceres Revilla jaunari: 346 €

- Luis Fernando Pedrera Lobato jaunari: 315 €

- Arantza Perez Gonzalez andreari: 247 €

- Manuel Francisco Garcia San Andres jaunari: 342 €

- Jose Antonio Peña Ruiz jaunari: 311 €

* Merino alkate jaunak (Socialistas Vascos-Euskal Sozialistak) adirazi du batzordeak, gutxienez, erantzukizun ezarekin jardun zuela osoko bilkurara ekarri den irizpena talderen batek proposatu zuenean. Bere iritziz, era berean, batzordeburuak berdintsu jardun zuen baldintza zenbait beharko zituzkeen gaiak batzordean eztabaidatzea utzi zuelako. Esaterako, afera ekonomiko batez hitz egiten dutenean, jakin beharko zuketen horrek zenbat suposatzen duen, ea legezkoa den eta gainontzeko kontuak. Bestalde, araudiak markatzen duen bezala, boto partikularra ikusi, eztabaidatu eta bozkatuko dute, eta berori onartu edo atzera botatzen dutenaren baitan, eztabaidatuko dute batzordearen irizpena. Horregatik, lehenik taldeei hitza emango die boto partikularraz esan beharrekoak esateko. Bozketan ezetza ateraz gero, berriz, Lehendakaritza eta Barne-antolaketako batzordearen irizpena ezbaidatuko dute. Amaitzeko, esan du denek badakitela zer suposatzen duen gaiak, dagoen

- A D. Fernando Baz Artola 376 €

- A D. Bernardo Paquico Marichalar: 409 €

- A D.Salvador Cáceres Revilla 346 €

- A D. Luís Fernando Pedrera Lobato: 315 €

- A Dña.Arantza Pérez González 247 €

- A D. Manuel Fco. García San Andrés 342 €

- A D. José Antonio Peña Ruiz 311 €

* El Alcalde, Sr. Merino (Socialistas Vascos-Euskal Sozialistak) manifiesta que cree que en la comisión se ha incurrido, cuanto menos, en una cierta irresponsabilidad cuando se propuso por parte de algún grupo el dictamen que ha venido al Pleno, e incluso, por parte de la presidencia de la comisión por permitir que se debatan ciertos temas para los cuales no constan premisas que deberían constar. Por ejemplo, si hablan de un tema económico debe constar preceptivamente cuantificación e informe de legalidad y demás. Por otro lado dice que, como marca el reglamento, procederán a tratar, debatir y votar el voto particular y, en función de que se apruebe o decaiga, pasarán a tratar el dictamen de la comisión. Por ello, en primer lugar da la palabra a los grupos para tratar sobre el voto particular. Si en la votación decayera, pasarán a debatir y votar el dictamen de la Comisión de Presidencia y Régimen Interior. Finaliza diciendo que todos conocen lo que

dokumentazioak, eta aurreko egunean, Alkateak eskatuta, Udalbatzako idazkariak eginiko txostenak.

implica este tema, la documentación existente e, incluso, el informe que ayer se repartió realizado, a petición del Alcalde, por el Secretario de la Corporación.

* Burgos jaunak (Alkarbide) esan du, nahiz eta zalantzak dituen Alkateak oraintxu bozketarako adierazitako jardunbideaz, lehenik batzordeak proposaturikoa eztabaidatu eta bozkatu beharko litzakeela uste duelako, eta gero boto partikularrekoa —horri buruzko galdera egin du—. Bere iritziz, osoko bilkurara ekarritako proposamenean irregularitate esanguratsu samarrak daude, eta horien inguruko erantzukizunez ere hitz egin beharko zuketen. Gaineratu duenez, irizpena ez da batzordean onarturikoa, eta hortaz, uste du akatsak zuzendu eta erantzukizunak bilatu beharko liratekeela, hain zuzen, irizpena zergatik ez den batzordean onarturikoa, proposamena zergatik ez den pasa garaiz zerbitzu juridikoetatik, eta zergatik ez zitzaien pasa talde politikoei eztabaidatu zezaten, hala nola Ogasuna batzordetik, honek baloratu zezan.

* El Sr. Burgos (Alkarbide), aún teniendo dudas sobre que el procedimiento de votación a seguir sea el que el Alcalde acaba de decir, ya que cree que primero debería debatirse y votarse la propuesta de la comisión y después el voto particular –hace la pregunta pertinente al respecto-, dice que en el dictamen que viene al Pleno hay irregularidades bastante significativas, sobre las que también habría que hablar de responsabilidades. Añade que el dictamen no es el que se aprobó en la comisión, ni en forma ni en el fondo, por lo que cree que deberían corregirse esos errores y buscar responsabilidades en cuanto a por qué no se ha dictaminado de acuerdo con lo que se aprobó en la comisión, por qué esa propuesta no se pasa a los servicios jurídicos en tiempo y en forma y por qué no se pasó a los grupos políticos para su conocimiento y debate, e incluso, a la Comisión de Hacienda para que pudiera valorar esa comisión.

* Merino alkate jaunak (Socialistas Vascos-Euskal Sozialistak) hitza kendu dio Burgos jaunari (Alkarbide) eta ohartarazi lehenengo, boto partikularra eztabaidatu behar dela.

* El Alcalde, Sr. Merino (Socialistas Vascos-Euskal Sozialistak) interrumpe al Sr. Burgos (Alkarbide) advirtiéndole de que, en primer lugar, hay que debatir sobre el voto particular.

* Burgos jaunak (Alkarbide) uste du lehenik Idazkariak irakurri duen proposamena argitu beharko litzakeela.

* El Sr. Burgos (Alkarbide) cree que primeramente se debería de aclarar la propuesta que ha leído el Secretario de la Corporación.

* Merino alkate jaunak (Socialistas Vascos-Euskal Sozialistak) eskatu dio bozkatu behar dutenean zentratzeko. Gaineratu duenez, Idazkaria fede emateko dago, eta osoko bilkura horretan hitz egin behar badu, berak, Alkatea izanik, eman beharko dio txanda. Gainera, egin zitzakeen txostenak ere,

* El Alcalde, Sr. Merino (Socialistas Vascos-Euskal Sozialistak) le solicita que se centre en lo que tienen que votar. Añade, primero, que el Secretario está para dar fe y que cuando tenga que hablar en este Pleno será él como Alcalde el que le de la palabra y, segundo, que los informes que pueda haber



C.I.F. P-2007200-E Herriko Plaza z/g. • Tfnoa: 943 449601 - Fax 943 449650 • 20100 ERRENTERIA(Gipuzkoa) • www.errenteria.net

Alkateak eskatuta egin beharko zituzkeen, esan du. Eta, berriro dio, Burgos jaunak (Alkarbide) txanda ematea nahi badu, talde sozialistaren boto partikularrez hitz egiteko izan beharko du, bestela, beste talde bati emango diolako.

hecho, los hace también a petición del Alcalde. Insiste en que el Sr. Burgos (Alkarbide) tiene que debatir sobre el voto particular del grupo socialista si quiere la palabra, si no, la dará a otro grupo.

* Peralta andreak (PP) esan du ez duela epaiak —beretzat argia— esaten duena baino gehiago eztabaidatzeko asmorik. Beretzat, gainera, Idazkariaren txostena koherentea da, eta hortaz, ez du gidoitik ateratzeko asmorik.

* La Sra. Peralta (PP) manifiesta que no va a debatir más de lo que dice la sentencia, que cree que es clara. Además, piensa que el informe del Secretario es coherente, por lo que no va a salirse de ese guión.

* Ferradas jaunak (Ezker Batua-Berdeak) esan du bere taldea ez datorrela bat talde sozialistak eginiko proposamenaren bigarren puntuarekin, hots, 2007 ondorengo urteetako ordainsariak ez eguneratzeko eginarekin, eta puntu horretaz hitz egin dezaten Enpresa Komiteko ordezkariei hitz egitea utziko ote dien zalantzak dituenez, hitzez hitz irakurriko du Enpresa Komitearen idazki bat. Bere ustez, gainontzeko sindikatu-atalek bereganatzen dute Enpresa Komiteak talde sozialistak eginiko proposamenaren 2. puntuari buruz esaten duena: “... ez dute ulertzen ondorengo urteetako ordainsariak ez eguneratzea. %1 hau 2007ko ordainsariei dagokiona da, eta 2008ko Udalhitzek, 92. artikuluan zera dio: “Erakundeko funtzionarioen ordainsariak urtero igoko dira Hitzarmen hau indarrean dagoen bitartean, igoera aurrekontu-arauen araberakoa izango da; 2008ko lansariak 2007. urterako onartutako lansariak akordio hartan ezarritako portzentajeen arabera igoko dira”. Gaineratu duenez, Enpresa Komiteak zera baieztatzen du: “... Paradoxikoa badirudi ere, lanpostu bera okupatzen dutenek, 2008an errekurtsogileak errekurritu ez duen pertsonaren soldata berdina kobratuko du, zeren eta, azken honek Udalhitzen bidez %5,2ko igoera izango du, eta errekurtsoa jarri duenak, berriz, %4,2ko benetako igoera izango du 2008an. Ondorioz, bada, lan-hitzarmenak markatzen zuena baino igoera txikiagoa izan du, gaineratu du.

* El Sr. Ferradás (Ezker Batua-Berdeak) manifiesta que su grupo no puede compartir lo relativo al punto dos de la propuesta realizada por el grupo socialista sobre no actualizar las retribuciones a los años posteriores al 2007, y dado que duda de que se deje intervenir en este punto a los representantes del Comité de Empresa, lee textualmente un escrito del Comité de Empresa, que entiende que asumen el resto de secciones sindicales, en relación al punto nº 2 de la propuesta del grupo socialista: “. . . . No entienden que las retribuciones de los años posteriores no se actualicen. Este 1% corresponde a las retribuciones del año 2007, que el Udalhitz del 2008 establece en el Art. 92 que las retribuciones del personal funcionario de la institución se incrementarán durante la vigencia del presente acuerdo para acabar en las cuantías que se establezcan en las normas presupuestarias de aplicación, que las retribuciones del 2008 se incrementarán respecto de las tablas retributivas aprobadas el año 2007 en los porcentajes establecidos en dicho acuerdo”. Añade que el Comité de Empresa llega a afirmar: “. . . Se da la paradoja que ocupando el mismo puesto de trabajo, uno de los recurrentes llega a cobrar en el 2008 la misma cantidad que una persona que no ha recurrido, ya que ha tenido una subida salarial del 5,2% aprobada por el Udalhitz y el recurrente ha tenido una subida real del 4,2% en el 2008. Ha tenido, por tanto, una subida inferior a la marcada por el convenio”.



C.I.F. P-2007200-E Herriko Plaza z/g. • Tfnoa: 943 449601 - Fax 943 449650 • 20100 ERRENTERIA(Gipuzkoa) • www.errenteria.net

* Peña andreak (EAJ/PNV) esan du saiatuko dela koherentzia pitin batekin diskurtsoa lotzen, alabaina orain eztabaida-gaia banandu denez, ahaleginak egin behar ditu hura erdietsi ahal izateko. Bere iritziz puntu horretan irizpena aldatu behar da, eta Alkateak esango du noiz egin behar den. Gaineratu duenez, berak ez du proposamen hori kapritxoz egiten, bezperako azken orduko txosten juridikoen berri jakin ondoren baizik. Eta horregatik, ordura arte ezin izan du legea ustez beteko lukeen proposamen alternatiborik egin. Haren ustez, ondoren esango duenak boto partikularrentzako zein batzordearen irizpenarentzako balio du. Horrela, ez zaio zuzena iruditzen gai horri eman zaion tratamendua ematea, bere aburuz, gai horrek batzordean beste modu batera kudeatzeko lain garrantzia zeukan, hots, askozaz ere informazio gehiagorekin eta ez batzordean izan zirenak —eta ondorioz, gainontzeko guztiak— aurkitu zuten nahaste-borrastearekin. Hau dio bazekitelako gai honek zer nolako garrantzia zeukan, eta nahiz eta batzordeburuak proposamen bakarra egin, ezin dute baztertu espediente berean sindikatu-atal baten proposamena zegoela, eta bertan, askozaz ere zabalago jarduten zela aferaz, eta Langileria Sailean bertan ere askozaz gehiago zekitelako Euskadi mailan gai honen inguruan dagoen trikimailuaz. Horregatik uste du ez litekeela ezjakintasuna argudiatu. Panorama hori zutela, batzordean batzordeburuak eginiko proposamena eta AOTk eginiko txosten batekin aurkitu ziren. Ez zuten, ordea, epaiaren berririk. Geroztik, hainbat txosten egin dituzte: bat Kontu-hartzaileak, eta bestea, Udaleko Idazkari nagusiak, hain zuzen ere. Baina, lehen zioen moduan, gaiak daukan garrantzia kontuan hartuta, eta txostenak eman diren garaian eman direlako, talde politikoak egoera konplikatu samarrean uzten ditu. Jarraian adierazi duenez, deigarria egiten zaio Gai Zerrendan sartuta zegoen proposamen alternatibo horrentzat —talde politikoek asumitu dezaketena edo ez— ez beharrezkoa izatea txostena. Alabaina, “gerora begira”, uste du hobea

* La Sra. Peña (EAJ/PNV) dice que ha intentado hilar un discurso con cierta coherencia. Ahora, al separar el objeto de debate, tiene que hacer un esfuerzo para conseguirlo. Cree que en este punto se debe modificar el dictamen. El Alcalde señalará cuando se debe hacer. Añade que no hace esta propuesta en esta sesión plenaria por capricho sino porque han tenido noticias de los informes jurídicos ayer a última hora, por lo que hasta este momento no ha podido hacer una propuesta alternativa que cree que cumple con la legalidad. Seguidamente dice, señalando que es algo común tanto al voto particular como al dictamen de la comisión, que no le parece correcto el tratamiento que se le ha dado a este tema en su gestión, ya que es un tema de una importancia suficiente como para haberse gestionado de otra manera en la comisión, con mucha más información y no con el desbarajuste con el que se encontraron los que estuvieron en la comisión y, por extensión, todos los demás. Dice esto porque se sabía el alcance que podía tener este tema y, más allá de que la propuesta del Presidente de la Comisión fuera una, no se puede obviar que en el mismo expediente había una propuesta de una sección sindical donde se abarcaba muchísimo más y porque también en el Departamento de Personal conocían todo el tejemaneje que hay sobre este punto a nivel de Euskadi. Por lo tanto, no se puede alegar desconocimiento. Con este panorama, añade, en la comisión se encontraron con una propuesta del Presidente de la Comisión y con un informe de la TAG, ni siquiera con la sentencia. Luego, han “llovido” informes. Uno del Interventor y otro del Secretario General del Ayuntamiento. Pero como decía anteriormente, la importancia de este tema y el momento en el que se han entregado los informes, deja en una situación bastante complicada a los grupos políticos. A continuación dice que le llama la atención que para esa propuesta alternativa que ya estaba en el Orden del Día y que puede ser o no asumida por los grupos políticos, no era preciso hacer ningún informe, sin embargo, “a

C.I.F. P-2007200-E Herriko Plaza z/g. • Tfnoa: 943 449601 - Fax 943 449650 • 20100 ERRENTERIA(Gipuzkoa) • www.errenteria.net

interesdunek erreklamazioak eta iradokizunak egin ahal izateko, horretarako iragarkia Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitara emanez. Inork ez balu erreklamazio edo iradokizunik egingo, behin betiko onartutzat joko litzateke.

pública y audiencia a los interesados para la presentación de reclamaciones y sugerencias por un plazo de 30 días mediante la publicación de anuncio en el Boletín Oficial de Gipuzkoa. Caso de no presentarse ninguna reclamación o sugerencia, se entenderá definitivamente aprobada.

**13. Proposamena: Onartzea Errenteriako Udala eta Gipuzkoako Foru Aldundia, Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioa, Donostia-San Sebastiango Udala eta Irungo Udalaren arteko Lankidetza-hitzarmena, "Autoridad Territorial del Transporte de Gipuzkoa – Gipuzkoako Garraioaren Lurralde Agintaritza" deituriko partzuergo izaerako erakunde juridiko-publikoa eratzeko.**

**13.- Propuesta de aprobación del Convenio de Colaboración entre el Ayuntamiento de Errenteria y la Diputación Foral de Gipuzkoa, la Administración de la Comunidad Autónoma del País Vasco, el Ayuntamiento de Donostia-San Sebastián y el Ayuntamiento de Irún, con la finalidad de constituir una entidad jurídico-pública de carácter consorcial denominada "Autoridad Territorial del Transporte de Gipuzkoa-Gipuzkoako Garraioaren Lurralde Agintaritza".**

Abenduaren 15eko 5/2003 Legearen, Euskadiko Garraio Agintaritzarena, 14. eta ondorengo artikuluetan xedatutakoari jarraiki, eta Gipuzkoako Lurralde Historikoko bidaiarien garraio publikoko sistema indartzearren, bidaiarien garraio kolektiboko eta berorren Gipuzkoako azpiegitura-zerbitzuak koordinatuz eta Euskadiko Garraio Agintaritzarekin lankidetzan jardunez, Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioak, Gipuzkoako Foru Aldundiak, Donostia-San Sebastiango Udalak, Irungo Udalak, Deba Goieneko Mankomunitateak, Deba Beherea, S.A. Ekonomia Garapenerako sozietateak eta Oarsoaldea, S.A. Eskualdeko Garapen Agentziak 2007an eratu zuten Autoridad Territorial del Transporte de Gipuzkoa – Gipuzkoako Garraioaren Lurralde Agintaritza, S.A., sozietate anonimo izaera juridikopean.

En cumplimiento de lo dispuesto en los artículos 14 y siguientes de la Ley 5/2003, de 15 de diciembre, de la Autoridad del Transporte de Euskadi y al objeto de fortalecer el sistema de transporte público de viajeros en el Territorio Histórico de Gipuzkoa, coordinando los servicios de transporte colectivo de viajeros y de sus infraestructuras en Gipuzkoa en colaboración con la Autoridad del Transporte de Euskadi, la Administración de la Comunidad Autónoma del País Vasco, la Diputación Foral de Gipuzkoa, el Ayuntamiento de Donostia-San Sebastián, el Ayuntamiento de Irún, la Mancomunidad del Alto Deba, la Sociedad para el Desarrollo Económico del Bajo Deba, S.A. y la Agencia de Desarrollo Comarcal Oarsoaldea, S.A. constituyeron en 2007 la Autoridad Territorial del Transporte de Gipuzkoa – Gipuzkoako Garraioaren Lurralde Agintaritza, S.A., bajo la forma jurídica de sociedad anónima mercantil.

Hori horrela, Autoridad Territorial del Transporte de Gipuzkoa – Gipuzkoako Garraioaren Lurralde Agintaritza, S.A. eratuta egon den garaian

No obstante los avances registrados en los dos años de vigencia de la sociedad Autoridad Territorial del Transporte de Gipuzkoa – Gipuzkoako



C.I.F. P-2007200-E Herriko Plaza z/g. • Tfnoa: 943 449601 - Fax 943 449650 • 20100 ERRENTERIA(Gipuzkoa) • www.errenteria.net

antzemanda eskasegia dela sozietate anonimoko izaera juridikoa etorkizunean egin nahi diren eginkizun guztiei erantzuteko. Hortaz, sozietatea osatzen duten partaideek —sozietatearen gobernu-eredu eta kudeatzeko ereduaren inguruan abian jarritako hausnarketa-prozesuaren emaitza modura edo— erabaki dute administrazio izaerako zuzenbide publikoko erakunde berri bat (Partzuergoa) sortzea, hain zuzen, etorkizunean eginkizun berriak egiteko administrazio-ahalak izango dituena.

Garraioaren Lurralde Agintaritza, S.A., se ha constatado la insuficiencia de la forma jurídica de sociedad anónima mercantil para el ejercicio de la totalidad de las funciones que en un futuro se le pretenden atribuir, habiendo sus entidades integrantes optado, como resultado del proceso de reflexión abierto acerca del Modelo de Gobierno y del Modelo de Gestión de la sociedad, por la creación de una nueva entidad de derecho público de naturaleza administrativa que, bajo la forma jurídica de Consorcio, disponga de potestades administrativas para el ejercicio de sus futuras nuevas funciones.

Zentzu horretan, nabarmentzekoa da erakunde berriak, abenduaren 15eko 5/2003 Legeak, Euskadiko Garraio Agintaritzarenak, arautzen duen Garraiorako Lurralde Agintaritzak berezkoak dituen propioez gainera, ondoko hauexek ere edukiko ditu xedetzat:

En este sentido, cabe destacar que la nueva entidad, además de tener como objeto y finalidades los propios de una Autoridad Territorial del Transporte regulada por la Ley 5/2003, de 15 de diciembre, de la Autoridad del Transporte de Euskadi, también tendrá como objeto y finalidades:

1. Koordinazioa eta lankidetza uztartzea Gipuzkoako Lurralde Historikoko garraio-azpiegiturak eta zerbitzu-arloan jarduten duten erakundeen artean.

1. Articular la coordinación y cooperación entre las entidades que la integran en el ámbito de los servicios y de las infraestructuras de transporte del Territorio Histórico de Gipuzkoa.

2. Era berean, koordinazioa eta lankidetza uztartzea Gipuzkoako Lurralde Historikoko garraioan jarduten duten erakunde eta operadoreen erakunde eta erakundekoak ez diren baina garraioko zerbitzu eta azpiegituren titular eta emakidadun direnen arteko lana.

2. Articular la coordinación y cooperación entre las entidades que la integran y aquellas otras entidades y operadores de transporte que, no siendo integrantes de la misma, son también titulares o concesionarios en el Territorio Histórico de Gipuzkoa de servicios e infraestructuras de transporte.

3. Kudeatzea Gipuzkoa Lurralde Historikoko zerbitzu eta garraio-azpiegituretan erakundeek dituzten jarduera-eskuduntza guztiak. Horretarako beharrezkoa izango da, kasu bakoitzean baliatu beharreko baliabide juridikoaren bidez, bidezko ahalmenak ematea (i), eskumenak eskualdatzea edo ordezkatzea edota kudeatzeko aholkuak ematea (ii).

3. Gestionar, en el ámbito de los servicios y de las infraestructuras de transporte del Territorio Histórico de Gipuzkoa, toda clase de actividades de competencia de las entidades que la integran. A estos efectos, será preciso que, mediante el instrumento jurídico que en cada caso resulte de aplicación, tengan lugar (i) las correspondientes atribuciones, transferencias o delegaciones de competencias o (ii) las correspondientes



C.I.F. P-2007200-E Herriko Plaza z/g. • Tfnoa: 943 449601 - Fax 943 449650 • 20100 ERRENTERIA(Gipuzkoa) • www.errenteria.net

encomiendas de gestión.

30/1992 Legeak, azaroaren 26koa, Herri administrazioen araubide juridikoaren eta administrazio prozedura erkidearenak (aurrerantzean 30/1992 Legea) zein 7/1985 Legeak, apirilaren 2koa, Tokiko Araubide-oinarriak arautzen dituenak, Partzuergoa ikusten dute tresnatzat administrazioen arteko koordinazioa eta lankidetza emateko. Partzuergoa, koordinazioa eta lankidetza emateko tresna gisa, Gipuzkoako Lurralde Historikoan, zehazki, 6/2007 Foru Arauak arautzen du, apirilaren 10ekoa, Gipuzkoako Lurralde Historikoko udalaz gaineko eremuko erakundeak arautzen dituena (aurrerantzean 6/2007 Foru Araua).

Tanto la Ley 30/1992, de 26 de noviembre, de Régimen Jurídico de las Administraciones Públicas y del Procedimiento Administrativo Común (en adelante, Ley 30/1992), como la Ley 7/1985, de 2 de abril, Reguladora de las Bases del Régimen Local aluden a la figura del Consorcio como instrumento de coordinación y cooperación interadministrativa. La figura del Consorcio, como instrumento de coordinación y cooperación interadministrativa, ha sido regulada específicamente en el Territorio Histórico de Gipuzkoa por la Norma Foral 6/2007, de 10 de abril, reguladora de las Entidades de Ámbito Supramunicipal del Territorio Histórico de Gipuzkoa (en adelante, Norma Foral 6/2007).

Horrela, akordio honen baitan sinatuko den lankidetza-hitzarmena bidez sortu den erakundeak Partzuergo izaera juridikoa hartuko du 6/2007 Foru Arauan aurreikusten den bezala.

Siendo así, la entidad cuya creación se promueve con la firma del Convenio de Colaboración objeto del presente acuerdo adopta la forma jurídica de Consorcio en los términos previstos en la Norma Foral 6/2007.

Hala ere, sortutako erakundeak, 6/2007 Foru Arauaren 18.4 artikuluan xedatutakoaren arabera, ez du izango toki-erakunde izaera, besteak beste, Gipuzkoako Foru Aldundiaren, Eusko Jaurlaritzaren eta Partzuergoko toki-erakundeen interesak kudeatuko dituelako, eta Gipuzkoako Foru Aldundia eta Eusko Jaurlaritza baitira interesdun nagusiak direlako.

No obstante, la entidad creada, conforme a lo dispuesto en el artículo 18.4 de la Norma Foral 6/2007, no tendrá el carácter de entidad local, dado que gestionará intereses de la Diputación Foral de Gipuzkoa, del Gobierno Vasco y de las entidades locales consorciadas, siendo los intereses de la Diputación Foral de Gipuzkoa y los intereses del Gobierno Vasco los intereses principales.

Partzuergoa eratzeko aurreikusitako prozeduraren arabera, lankidetza-hitzarmenaren I. Eranskinean jasota dagoena, behin berori onartu eta Batzar Eratzailean Udal honek izango duen ordezkaritza izendatu ostean, Partzuergoak akordioak koordinatzeko lanak, jendaurrean jartzekoak, alegazioak jaso eta ebaztekoak, Estatutuen eta, hala badagokio, Hitzarmenaren behin betiko onespena partzuergoan sartutako

De conformidad con el procedimiento previsto para su creación, Anexo I del Convenio de Colaboración objeto del presente acuerdo, aprobado éste y con el nombramiento de un representante de este Ayuntamiento en la Asamblea Constituyente, ésta desarrollará el proceso de coordinación de acuerdos, exposición al público, recogida y resolución de alegaciones, sometiéndose a la consideración de los órganos competentes de las



C.I.F. P-2007200-E Herriko Plaza z/g. • Tfnoa: 943 449601 - Fax 943 449650 • 20100 ERRENTERIA(Gipuzkoa) • www.errenteria.net

administrazio ezberdinen eskumendun organoen baitan jarriko du.

Hori guztiagatik, 6/2007 Foru Arauaren 22.1 artikuluaren bigarren idatzi-zatiaren babespean eta 30/1992 Legearen 6. artikulua kontuan hartuta, aldeek elkartearen desioa gauzatu nahi dute, eta ondorioz, partzuergo izaerako erakunde juridiko-publiko berria eratu espedientean jasota dagoen Lankidetza-hitzarmenaren bidez.

Idazkari Nagusiaren 2010eko apirilaren 16ko txostena ikusitakoan.

Lehendakaritza eta Barne Antolaketako Batzordearen proposamena ikusitakoan.

Ondoren, mintzatu dira:

* Murua jaunak (atxiki gabeko zinegotzia) esan du eurek Alkateari eskatzen diotela lehen berak aitaturiko "eskuzabal" hitza orain aplikatzeko, hots, gaia mahai gainean uzteko. Izan ere, erakunde erraldoi batez hitz egiten ari dira, eta egia esan behar badu, ia-ia ez dute denborarik izan eman zaien dokumentazioa irakurtzeko ere. Proposamen hori egiten diote Alkateari kontuan izanik erabakia hartu behar duten erakundeek oraindik ez dutelako hartu, eta eurek izango liratekeelako lehenengoak. Horrela, Irun herriak pasa asteazkenean burutu zuen bere udalbatzarrean puntu hori ez zegoen gai zerrendaren barruan. Horrexegatik, beraz, aztertzeko denbora gehiago eskatzen dute.

* Merino alkate jaunak (Socialistas Vascos-Euskal Sozialistak) esan du berak ulertzen duela beti denbora gehiago behar izatea, baina kontu hori ez da

diferentes Administraciones consorciadas la aprobación definitiva de los Estatutos y, en su caso, del Convenio.

Por todo ello, y al amparo del artículo 22.1, párrafo segundo, de la Norma Foral 6/2007 y del artículo 6 de la Ley 30/1992, las partes desean plasmar la voluntad de asociación y los términos de la misma, voluntad que da lugar a la creación de una nueva entidad jurídico-pública de carácter consorcial a través de la formalización del Convenio de Colaboración que consta en el expediente.

Visto el informe del Secretario General de fecha 16 de abril de 2010.

Vista la propuesta de la Comisión de Presidencia y Régimen Interior.

Se producen las siguientes intervenciones.

* Toma la palabra el Sr. Murua (Concejal no Adscrito) y manifiesta en euskera que solicitan del Sr. Alcalde la aplicación de la palabra "generosa" mencionada por el mismo, esto es, que el tema deje sobre la mesa. Le solicitan esto porque están hablando de una entidad gigante, y a decir verdad, no han dispuesto de tiempo ni para casi poder leer la documentación entregada. Le realizan dicha propuesta al Alcalde debido a que las instituciones que tienen que tomar dicha decisión todavía ninguna de ellas —ellos serian los primeros— ha adoptado acuerdo alguno. Tanto es así, señala, que el miércoles anterior el Ayuntamiento de Irún hizo su Pleno y este tema no estaba dentro del orden del día. Por dicho motivo, solicitan disponer de más tiempo para poder estudiar la misma.

* El Alcalde, Sr. Merino (Socialistas Vascos-Euskal Sozialistak) entiende que siempre hace falta más tiempo, pero tampoco este tema se ha traído de



C.I.F. P-2007200-E Herriko Plaza z/g. • Tfnoa: 943 449601 - Fax 943 449650 • 20100 ERRENTERIA(Gipuzkoa) • www.errenteria.net

egun batetik bestera ekarritakoa. Gaineratu duenez, han aitatzen diren erakunde guztiek konpromisoa hartu zuten euren erakundeetara estatutoak eramateko, eta apirilean onartuko zituztela, hain zuzen, maiatzean zehar Garraiorako Lurralde Agintaritza eratu ahal izateko. Horrela, estatutoak egin dituen enpresako ordezkariarekin, Foru Aldundiko eta Eusko Jaurlaritzako ordezkari banarekin, elkartu zen Udaleko Idazkaria, eta Bizkaiako

beste batzuetan oinarrituriko Estatuto hauei buruzko txostena egin zuen, deskuidatuta ez badago. Bere aburuz gaia aztertzeko nahikoa denbora izan da, eta beraz, mahai gainean uztearen aurka dago.

un día para otro. Añade que todas las entidades que aquí están mencionadas se comprometieron a traer los estatutos a sus respectivas instituciones y a que en el mes de abril estarían aprobados los mismos para que a lo largo del mes de mayo se pueda constituir la Autoridad Territorial de Transportes. Continua diciendo que un representante de la empresa que ha elaborado los estatutos junto con la Diputación y el Gobierno Vasco, basados en los de

Vizcaya, se reunió con el Secretario, el cual, si no está equivocado, emitió el correspondiente informe. Finaliza diciendo que cree que ha habido suficiente tiempo para estudiar este tema, por lo que está en contra de dejarlo sobre la Mesa.

* Murua jaunak (atxiki gabeko zinegotzia) esan du bera harrituta dagoela, eurentzat kontu hau berri-beria delako. Berak ez daki besteentzat hala izango den, baina berak dakienez, aurreko astean batzordetik pasa baino ez du egin. Eurek harrituta geratu dira, halaber, Idazkariak eginiko txostenean zera esaten delako: *“el propio proceso de redacción del texto del proyecto de estatutos ha sido en sus diferentes borradores...”.* Egia izango da —dio— atzetik datorren gai bat dela, baina zuen artean bakarrik zenekiten, gaineratu du. Horregatik eskatzen dute, hain zuzen ere, mahai gainean uzteko. Berak ez daki beste taldeek horren berririk ote duten, ezer ez badute esaten, ez dute jakingo, baina, lehen aitatu duten moduan, oso gai garrantzitsua da, azken finean, Gipuzkoa mailan sortuko den partzuergo batez hitz egiten ari direlako, eta hainbat herri baztertuta geratuko direlako. Gainera, aurreko puntu batean aitatu da besteen eskumen-eremuan sartu direla, eta horretan ez dute ikusi inon erabakia Ogasuna batzordean hartu den ala ez, zeren eta, bere iritziz, proposamenarekin batera egin beharreko diru-ekarpenez ere ari dira hitz egiten. Hots, ez dago txosten teknikorik; ez dakite dirurik badagoen; ez dakite Udalbatzak onartu behar duen kreditu-luzapen bat; ez dakite ezer. Hortaz uste dute ezin dutela

* El Sr. Murua (Concejal no Adscrito) dice en euskera que está extrañado, porque para ellos este tema es del todo nuevo. Él no sabe si para los demás es así, pero según sus noticias no ha hecho más que pasar por la comisión de la semana anterior. Asimismo, han quedado extrañados porque en el informe realizado por el Secretario se dice que “el propio proceso de redacción del texto del proyecto de estatutos ha sido en sus diferentes borradores...”. Añade que será cierto que es un tema que viene de atrás, pero señala que eso será sólo entre vosotros. Por ello decir que es tema viene de atrás, cree que en cierta medida será verdad, pero para ellos se trata de algo totalmente nuevo, motivo por el cual solicitan que quede sobre la mesa. No sabe qué es lo que piensan el resto de los partidos, pero si no dicen nada, no lo sabrán. Añade que, tal y como ha comentado anteriormente, es un tema muy importante, puesto que, aunque numerosos pueblos queden fuera, están hablando de un consorcio que se constituirá a nivel de Gipuzkoa. Además dice que en un punto anterior se ha mencionado que han invadido competencias que corresponden a otros, sin embargo, en este asunto no han visto si el acuerdo se ha adoptado o no en comisión Hacienda, puesto que a su juicio, juntamente con la propuesta, están



C.I.F. P-2007200-E Herriko Plaza z/g. • Tfnoa: 943 449601 - Fax 943 449650 • 20100 ERRENTERIA(Gipuzkoa) • www.errenteria.net

horrelako gai garrantzitsua modu horretan erabaki, eta horregatik eskatzen dute mahai gainean uzteko.

hablando asimismo de aportación de recursos. En definitiva, dice que no existe ningún informe técnico; no saben si existe dinero; no saben si tiene que aprobar el Pleno; no saben nada. Por todo ello, creen que no se puede adoptar un acuerdo tan importante de esta forma, motivo por el cual solicitan que quede sobre la mesa.

* Merino alkate jaunak (Socialistas Vascos-Euskal Sozialistak) esan du bera ez litekeela egon bakoitzak dakienaren baitan, baina ohartarazi nahi du egun Gipuzkoako Garraioaren Agintaritza deituriko erakunde bat aspaldiko urteetatik funtzionatzen ari dela. Horrek sustatzen du, besteak beste, txartel bakarra, EUSKOTREN eta RENFEren arteko koordinazioa, etab. Aldea orain zera da: lehen Errenteriako Udala ezin zen egon erakunde horretan 50.000 biztanle baino gehiago zuten herriak egon ahal zirelako. Aldundia, Eusko Jaurlaritza, Donostiako eta Irungo udalak bakarrik zeuden. Orain, aldiz, estatuto hauek ahalbidetzen dute edozein udalek eska dezan Garraiorako Lurraldeko Agintaritzan sartu eta parte-hartzea. Era berean, finantzatzeko era ere aldatzen da, izan ere, %90ez Aldundia eta Eusko Jaurlaritza arduratuko dira. Gainontzeko % 10ez, berriz, %7 Donostiako Udalak eta %2 Irungo Udalak hartuko du, eta %1 Errenteriako Udalak. Irekirik dago —dio— Lurralde Historikoko edozein udalerri sartzeko, eta sartuko balira Errenteriako Udalari dagokion %1 hori gutziago izango litzateke. Horrezaz gain, esan behar du orain garapen-agentziak ere barnean daudela, eta beraz, bertan dagoela Oarsoaldekoa, eta modu horretan, nahiz eta 50.000 biztanle baino gutxiago izan, zeharka bada ere, ordezkatuta dago. Bere irudiko aurrerapen bat suposatuko du Errenteria Garraiorako Lurralde Agintaritzan egoteak %1eko parte-hartzea ez badu izango ere. Beretzat garrantzitsua da gero eta inportantzia handiagoa hartuko duen erakunde batean egotea bera. Ondoren, esan du Udal honetako partaideren batek zerbait jakingo duela, besteak beste, kantzelagailuen aferarekin talde

* El Alcalde, Sr. Merino (Socialistas Vascos-Euskal Sozialistak) manifiesta que él no puede estar en lo que cada cual sabe, pero quiere advertir que un ente que actualmente también se llama Autoridad del Transporte de Gipuzkoa está funcionando desde hace varios años, que es el que promueve y trabaja, entre otras cosas, sobre el billete único, la coordinación con EUSKOTREN, RENFE. Etc. La diferencia está en que hasta ahora el Ayuntamiento de Errenteria no podía estar a título propio en ese ente porque solo estaban municipios con más de 50.000 habitantes. Solo estaba la Diputación, el Gobierno Vasco, el Ayuntamiento de Donosti y el Ayuntamiento de Irún. Estos estatutos permiten que cualquier ayuntamiento solicite su incorporación y formar parte en la Autoridad Territorial de Transportes. También cambia la financiación de la que el 90%, ahora, se hacen cargo la Diputación y el Gobierno Vasco. El 10% restante se reparte entre el Ayuntamiento de Donosti el 7%, el 2% el Ayuntamiento de Irún y el 1% el Ayuntamiento de Errenteria. Queda abierta la incorporación de cualquier otro municipio del territorio histórico por lo que si así fuera ese 1% que corresponde al de Errenteria bajaría. A continuación dice que ahora están incorporadas las agencias de desarrollo, con lo cual también está Oarsoaldea, y por ello, de forma indirecta, Errenteria al no ser una población de más 50.000 habitantes. Entiende que es un avance para Errenteria estar en la Autoridad Territorial de Transportes aunque no van a poder dilucidar nada con una participación del 1%. Pero, sí podrán estar en una institución que ahora mismo es ya importante pero que cada vez va a ir cogiendo más auge. Sigue



C.I.F. P-2007200-E Herriko Plaza z/g. • Tfnoa: 943 449601 - Fax 943 449650 • 20100 ERRENTERIA(Gipuzkoa) • www.errenteria.net

politiko batek, aurrekontuetan zuzenketa bat egitea proposatu zuenean, gai hau ere sartzeko eskatu zuenean.

diciendo que algo sabrá alguno de los miembros de este Ayuntamiento cuando, entre otros temas, se ocupará de las canceladoras, en relación al cual hubo un grupo político que propuso una enmienda a los presupuestos para que también se incluyera ese tema.

* Murua jaunak (atxiki gabeko zinegotzia) esan du gauza ezberdinez hitz egiten ari direla. Izan ere, Alkatea Donostia-ekialdeko Garraio Publikoaren Plan Estrategikoaz ari da, eta orain, berriz, partzuergoaz ari dira.

* El Sr. Murua (Concejal no Adscrito) señala que están hablando de cosas distintas. El Alcalde ha hablado del Plan Estratégico del Transporte Público de la Zona Donosti-Este y de lo están hablando ahora es del consorcio.

* Merino alkate jaunak (Socialistas Vascos-Euskal Sozialistak) ez direla diferenteak, esan du.

* El Alcalde, Sr. Merino (Socialistas Vascos-Euskal Sozialistak) indica que no son cosas distintas.

* Murua jaunak (atxiki gabeko zinegotzia) esan du estatutuetan planteatzen dela gaur aktiboan dagoen guztia erakunde berrira pasatzea, baina bi gauza ezberdinez ari dira. Gainera, esleipena jada prentsan atera da, eta ondorioz, erakunde berria sortzen denean zuzen zuzenean eskualdatuko den kontu batez ari dira. Horrezaz gain, Merino alkate jaunak (Socialistas Vascos-Euskal Sozialistak) esan duen eran, eurek jakin badakite Garrairako Lurralde Agintaritzan esku hartzen dutela, baina ez Udaleko ordezkariak hortaz zerbait esan dielako. Gai honi buruz ez diete batzorde bakar batean ere informaziorik eman. Are gehiago, erakunde berri hau sortzeko prozesuan Alkateak esan du Errenteriako Udala behar bezala ordezkaturik zegoela garapen-agentziaren bidez, baina berak dituen albisteen arabera, Oarsoaldea Garapen Agentziako udal bakar batek ere —honek salbu— ez du parte hartu estatutoak egiten. Ondoren zera esan du: “Zuek baduzue honen berri. Zuek Udalaren arduradun gisa hau sustatu duzue, baino gainontzekoei ez zaigu inolako informaziorik pasa”. Bere iritziz, kontu honek garrantzi handia du, zeinaren helburuekin bera bat egon litekeena, baina tamaina honetako erabaki bat hartzeko dokumentu gehiago behar dituzte, hain zuzen erakunde honetan nola parte hartzen duten eta

* El Sr. Murua (Concejal no Adscrito) señala que en los estatutos se plantea que todo lo que hoy está en activo se traslade a la nueva entidad, pero están hablando de dos cosas distintas. De hecho, la adjudicación ya ha salido en la prensa con lo cual están hablando de una cuestión que se transmitirá directamente al nuevo ente cuando se cree. Continua diciendo que, como ha manifestado el Alcalde, Sr. Merino (Socialistas Vascos-Euskal Sozialistak) saben que participan en la Autoridad Territorial del Transporte, pero no porque el representante de la Corporación les haya comunicado nada al respecto. Tampoco en ninguna comisión se les ha dado información sobre este ente. Es más, en el proceso de creación de este nuevo ente, el Alcalde ha dicho correctamente que el Ayuntamiento de Errenteria estaba representado como agencia de desarrollo, pero, según las noticias que tiene, ningún ayuntamiento de la Agencia de Desarrollo de Oarsoaldea, excepto este, ha tenido conocimiento ni ha participado en la elaboración de los estatutos. Seguidamente dice: “Ustedes son conocedores de esto. Ustedes han promovido esto como responsables del Ayuntamiento pero ninguna información ha transcendido al resto”. Entiende que esta es una cuestión muy importante con cuyos



C.I.F. P-2007200-E Herriko Plaza z/g. • Tfnoa: 943 449601 - Fax 943 449650 • 20100 ERRENTERIA(Gipuzkoa) • www.errenteria.net

zein portzentajetan jakiteko. Izan ere, Alkateak portzentajearen berri eman badu ere, batzorde bakar batean ere eztabaidatu ez dutelako inork ez daki harren berri. Haren iritziz, orain planteatutakoaren arabera, Donostia izango da organo erabakiorra eta betoa jarriko duena, zeren eta Aldundia eta Eusko Jaurlaritzaren artean berdinketa ematen bada, Donostiak erabakiko du. Gainontzekoek ezin izango dute ezer esan, behintzat estatutoetan egiten banaketaren arabera. Beharbada —dio— zinegotziren batek plantea dezake banaketak ez duela zertan horrela izan. Hortaz, esandako guztiarengatik, uste du, gaiari buruz ausnarketa egin behar dutela. Gainera, Alkateak esan duenaren arabera, apirilean onartu beharrekoa da, eta bihar apirilak 30 izango denez, Irunek ez du beteko baldintza hori, gaineratu du.

objetivos pueden estar de acuerdo, pero para tomar una decisión de este calibre hace falta más documentación para saber como participan en ese organismo y en qué porcentaje porque aunque el Alcalde ha planteado el porcentaje, nadie lo conoce porque no se ha debatido en ninguna comisión. En la composición de este ente, añade, lo que se está planteando es que sea Donosti el órgano decisorio y de veto, ya que cuando se produce un empate entre la Diputación y el Gobierno Vasco el que decide es el Ayuntamiento de Donosti. El resto no puede decir nada, tal y como se establece en el reparto de los estatutos. Quizás alguno de los concejales se pueda plantear que el reparto no tiene porqué ser así. Por todo lo expuesto considera que es necesario seguir reflexionando sobre este tema. Además dice que, como ha informado el Alcalde, abril es el mes de las aprobaciones y mañana es día 30 por lo que Irún no va a cumplir con ese requisito.

* Merino alkate jaunak (Socialistas Vascos-Euskal Sozialistak) esan du errespetatzen dituela haren argudioak, baina, bere aburuz, nahiko denbora izan dute. Gaineratu duenez, Errenteriako Udalak egingo duen aportazioa egun Oarsoaldearen bidez egiten duen berdina izango da. Berak ez daki nola iritsi diren parte-hartze portzentaje horietara, baina berari naturala iruditzen zaio, beste lurraldeetara begiratuz gero antzeko zerbait egin dutelako. Bere irudiko Aldundia eta Eusko Jaurlaritza bezalako erakunde handiek izan behar dute aurrekontuaren pisurik handiena. Udalen mailan, uste du, Errenteriako Udalak ez luke ezer aurreratuko %1 baino gehiago ordaindu nahiko balu, ez duelako uste beto-ahalmen handiagoa emango dienik. Kasu hauetan ordaintzen duenak agintzen du, eta %45eko parte-hartze kuota duenak botoetan proportzio hori du, eta Errenteriako Udalak Añarben, San Markos Mankomunitatean, etab.en duen pisua du. Aldatzen den toki bakarra Oarsoaldea da, non portzentajea ez baitoa biztanlearen arabera, hain zuzen %25 izatea erabaki zelako.

* El Alcalde, Sr. Merino (Socialistas Vascos-Euskal Sozialistak) le responde que respeta sus argumentos, pero piensa que ha habido tiempo suficiente. Continua diciendo que la aportación que el Ayuntamiento de Errenteria va a hacer es la misma que hace ahora a través de Oarsoaldea. No sabe como se ha llegado a estos porcentajes de participación pero le parece natural, además, mirando a otros territorios ve que han hecho algo equivalente. Entiende que los grandes entes como la Diputación y el Gobierno Vasco son los que tienen que cargar con el peso del presupuesto. A nivel municipal, cree que el Ayuntamiento de Errenteria no adelantaría nada si quisiera pagar más de un 1% porque no cree que ello les diera más capacidad de veto. En estos casos quien paga manda y el que tiene una cuota de participación del 45% tiene esa proporción en votos de la misma forma que Errenteria tiene el peso que tiene en el Añarbe, en la Mancomunidad de San Marcos, etc. En el único sitio que se cambia es en Oarsoaldea en donde el porcentaje no va por poblaciones sino que se acordó



C.I.F. P-2007200-E Herriko Plaza z/g. • Tfnoa: 943 449601 - Fax 943 449650 • 20100 ERRENTERIA(Gipuzkoa) • www.errenteria.net

que fuera el 25%.

Mintzaldiak amaitutakoan.

Eta gaia mahai gainean uzteko proposamena bozkatzeko jarritakoan.

Udalbatzak, geiengoz, aldeko 8 botorekin (Ezker Batua-Berdeak eta atxiki gabeko zinegotziak), aurkako 10 botorekin (Socialistas Vascos-Euskal Sozialistak eta PP) eta 2 abstentzioz (EAJ/PNV y Alkarbide),

**E R A B A K I D U**

- Atzera botatzea gaia mahi gainean uzteko proposamena.

Jarraian.

Udalbatzak, gehiengoz, aldeko 12 botorekin (Socialistas Vascos-Euskal Sozialistak, EAJ/PNV, PP eta Alkarbide) eta aurkako 8 botorekin (Ezker Batua-Berdeak eta atxiki gabeko zinegotziak), Udalbatzako partaideen legezko partaideen gehiengo osoa osatuz,

**E R A B A K I D U**

1. Onartzea Errenteriako Udala eta Gipuzkoako Foru Aldundia, Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioa, Donostia-San Sebastiango Udala eta Irungo Udalaren arteko Lankidetza-hitzarmena "**Autoridad Territorial del Transporte de Gipuzkoa – Gipuzkoako Garraioaren Lurralde Agintaritza"** deituriko partzuergo izaerako erakunde juridiko-publikoa, zeinaren helburua, xedeak eta araubide juridikoa Hitzarmenari, eranskin gisa, gehitzen zaion Estatutu-proiektuan aurreikusitakoak izango baitira.

Finalizadas las intervenciones.

Sometida a votación la propuesta de dejar el tema sobre la Mesa.

El Pleno de la Corporación, por mayoría, con 8 votos a favor (Ezker Batua-Berdeak y Concejales no Adscritos), 10 votos en contra (Socialistas Vascos-Euskal Sozialistak y PP) y 2 abstenciones (EAJ/PNV y Alkarbide)

**A C U E R D A**

- Desestimar la propuesta de dejar el tema sobre la Mesa.

Seguidamente.

El Pleno de la Corporación, por mayoría, con 12 votos a favor (Socialistas Vascos-Euskal Sozialistak, EAJ/PNV, PP y Alkarbide) y con 8 votos en contra (Ezker Batua-Berdeak y Concejales no Adscritos), conformando mayoría absoluta del número legal de miembros de la Corporación

**A C U E R D A**

1. Aprobar el Convenio de Colaboración entre este Ayuntamiento de Errenteria y la Diputación Foral de Gipuzkoa, la Administración de la Comunidad Autónoma del País Vasco, el Ayuntamiento de Donostia-San Sebastián y el Ayuntamiento de Irún, con la finalidad de constituir una entidad jurídico-pública de carácter consorcial denominada "**Autoridad Territorial del Transporte de Gipuzkoa – Gipuzkoako Garraioaren Lurralde Agintaritza**" cuyo objeto, finalidades y régimen jurídico sean los contemplados en el Proyecto de Estatutos que se

incorpora como Anexo al Convenio.

Era berean, onartzea 2010-2013ko ekonomia-finantza memoria, dokumentuan III. Eranskin gisa jasoa.

Asimismo se acuerda aprobar la memoria económico-financiera 2010-2013 que obra en anexo III del documento.

2. Juan Carlos Merino Gonzalez alkatea izendatzea Batzar Eratzailean Udaleko ordezkari titularra, eta ordezkoa, Luis Andres Jimenez zinegotzia.

2. Designar al Alcalde Juan Carlos Merino González como representante titular de este Ayuntamiento en la Asamblea Constituyente y al concejal Luis Andrés Jiménez como representante suplente.

**14. Ezker Batua-Berdeak-en mozioa, Lartzabal auzoan zarataren aurkako pantailak ezartzeari buruzkoa.**

**14.- Moción de Ezker Batua-Berdeak sobre pantallas antirruido en el Barrio Lartzabal.**

Ezker Batua-Berdeak taldeak Lartzabal auzoan zarataren aurkako pantailak jartzeari buruzko ondoko mozioa aurkeztu du:

Vista la siguiente moción presentada por Ezker Batua-Berdeak sobre pantallas antirruido en el Barrio Lartzabal:

"Ezker Batua-Berdeak udal taldeak Errenteriako Udaleko Udalbatzari ondorengo mozioaren berri ematen dio:

“El grupo municipal de Ezker Batua-Berdeak traslada al Pleno del Ayuntamiento de Errenteria la siguiente moción:

**Zioen azalpena:**

**Exposición de motivos:**

Lartzabal auzoko bizilagunek Gipuzkoako Foru Aldundiari proposatu diete hartu beharreko neurriak hartzeko GI-2132 errepidean, 15,680 eta 15,500 kilometro tartean, trafikoak sortzen duen soinua murriztearren. Lagun horiek zarataren aurkako panelak ezartzeko eskatzen zuten, hain zuzen, toki horretan dauden etxebizitzetan bizi direnek izaten dituzten eragozpenak kentzeko asmoarekin.

Vecinas y vecinos del barrio de Lartzabal han presentado una propuesta para pedir a la Diputación Foral de Gipuzkoa que establezca las medidas necesarias para minimizar el ruido originado por el tráfico de la carretera GI-2132, entre el PK 15,680 y PK 15,500. Dichas personas solicitaban la colocación de paneles antirruido con el fin de eliminar las molestias que sufren quienes habitan en las viviendas situadas en ese punto.

Foru Aldundiak eskaerari ezetza eman dio, etxebizitzak egin zituztenean errepidea bazegoela argudiatuz.

La respuesta por parte de la Diputación Foral es de desestimar tal petición, argumentando que la carretera ya existía cuando se construyeron las viviendas.



C.I.F. P-2007200-E Herriko Plaza z/g. • Tfnoa: 943 449601 - Fax 943 449650 • 20100 ERRENTERIA(Gipuzkoa) • www.errenteria.net

Erantzun horren inguruan esan dezakete Gipuzkoako Foru Alduandiak ez duela kontuan hartu otsailaren 27ko 3/1998 Legea, Euskal Erkidegoko Ingurumena Babesteko Orokorra, zeren eta, 35. artikuluan zera baitio: "*Neurriak hartu beharra. Airea poluitzeko (zarata eta dardarazko poluzioa barne) edozein fokuren titularrek obligazioa dute maila onargarriak mantentzeko behar diren neurriak hartzeko, horretarako banakako errekerimendu edo loturako ekintza beharko ez delarik".*

Ante tal respuesta cabe recordar a la Diputación Foral de Gipuzkoa que la Ley 3/1998, de 27 de febrero, General de Protección del Medio Ambiente del País Vasco, en su artículo 35 dice la siguiente: *"Obligación de adoptar medidas. Los titulares de cualesquiera focos de contaminación atmosférica, incluida la causada por ruido y vibración, tendrán la obligación de adoptar las medidas necesarias para observar los niveles aplicables, sin necesidad de actos de requerimiento o sujeción individuales".*

Udal talde honentzako, eta "kutsatzen duenak pagatu behar du" printzipioaren arabera, zarata errepidetik dator, eta beraz, titularra da, kasu honetan Gipuzkoako Foru Aldundia, kutsadura akustikoaren arduraduna, errepidea egin aurretik etxeak eginda egonik ere.

Para este grupo municipal y según el principio de "quien contamina paga" la emisión del ruido proviene de la carretera y es su titular, en este caso la Diputación Foral de Gipuzkoa, el responsable del foco de emisión de contaminación acústica, independientemente de que las viviendas no estuvieran construidas antes de la construcción de la carretera.

Horregatik, Ezker Batua-Berdeak udal taldeak Udalbatzari proposatzen dio har dezan ondoko **AKORDIOA**:

Por ello el grupo municipal de Ezker Batua-Berdeak propone la adopción por parte del Pleno de la Corporación del siguiente **ACUERDO**:

1. Errenteriako Udalak Gipuzkoako Foru Aldundiari eskatzen dio, otsailaren 27ko 3/1998 Legearen arabera, Euskal Erkidegoko Ingurumena Babesteko Orokorra, har ditzan hartu beharreko neurriak Errenteriako Lartzabal auzoko bizilagunek jasaten dituzten eragozpenak urritu eta, ahal bada, kentzeko.

1.- El Ayuntamiento de Errenteria pide a la Diputación Foral de Gipuzkoa que, de acuerdo con la Ley 3/1998, de 27 de febrero, General de Protección del Medio Ambiente del País Vasco, adopte las medidas correspondientes para minimizar y, a poder ser, eliminar las molestias a los y las vecinas del barrio de Lartzabal en Errenteria.

2. Erabakiaren kopia Foru Aldundiaren Bide-azpiegituretako Sailari igortzea eta komunikabideei berorren berri ematea".

2.- Trasladar copia del acuerdo adoptado al Diputado Foral del Departamento de Infraestructuras Viarias y darlo a conocer a las medios de comunicación".

* Burgos jaunak (Alkarbide) adierazi du mozioaren alde egingo duela, baina zalantzak ditu zarataren aurkako pantailak, bere garaian, badirudi

* Toma la palabra el Sr. Burgos (Alkarbide) y manifiesta que va a apoyar la moción pero que tiene dudas sobre si la colocación de las pantallas



C.I.F. P-2007200-E Herriko Plaza z/g. • Tfnoa: 943 449601 - Fax 943 449650 • 20100 ERRENTERIA(Gipuzkoa) • www.errenteria.net

etxebizitzak sustatu zituenak ipini behar zituela, kasu honetan Eusko Jaurlaritza edo etxebizitzak egin zituena izan ziteken, zaratak etxebizitzak egiteko garaian bazeudelako. Beretzat garrantzitsuena da zaratak kendu behar direla, kontua Batzar Nagusietako eskaera-batzordean dagoela, eta alderdi politikoek, erasandako pertsonak entzun ostean eta Errepideetako diputatuak emaniko azalpenen ondoren, euren alternatiboak aurkeztuko dituzte. Edonola ere, beretzat garrantzitsuena da modu batera edo bestera bizilagunek zarataren kontua konponduta ikustea. Horregatik, Ezker Batua-Berdeak-ek mozioa aurkeztu duen eran sostengatuko dute.

antirruido, en su momento, pudiera corresponder bien a la entidad promotora de las viviendas que en este caso pudiera ser el Gobierno Vasco o bien a la constructora de las mismas porque los ruidos ya existían en el momento de la construcción de las casas. Lo más importante es que el ruido tiene que desaparecer, que el tema está en la comisión de peticiones de las Juntas Generales y que los partidos políticos después de escuchar a las personas afectadas y la explicación del Diputado de Carreteras van a presentar sus alternativas. Lo más importante de todo ello es que de una manera o de otra los vecinos afectados vean solucionado el ruido que padecen. Por lo tanto, va a apoyar en los términos en los que se ha presentado la moción de Ezker Batua-Berdeak.

* Ferrada jaunak (Ezker Batua-Berdeak) adierazi du zorionez hainbat gaien inguruan bidea irekitzen ari diren printzipioak daudela. Horietako bat kutsatzen duenak ordaintzen du da. Gaineratu duenez, printzipio horietako zenbait lege ere bihurtzen dira, eta Euskal Erkidegoko Mendi eta Ingurumen legeak jasotzen du kutsadura-puntuak eragin duten titularrek beroriek ekiditeko neurriak hartu behar dituztela. Bestalde, salan dagoen alderdi sozialistako partaideren batek komunikabideetan esan duen moduan, Aldundiak emaniko erantzuna ez zaio nahikoa iruditzen. Horregatik, azken finean, “ilargia ere” ez delako eskatzen, bere taldeak mozio hau aurkeztu du. Bertan, Gipuzkoako Foru Aldundiak, ahal duen neurrian, zarata kendu edo minimizatu dezan eskatzen da, hain zuzen gune horretako biztanleak kaltetuak izan ez daitezen.

* El Sr. Ferradás (Ezker Batua-Berdeak) manifiesta que hay una serie de principios que afortunadamente se abren camino en los más diversos temas. Uno de esos principios es el de que quién contamina paga. Algunos de esos principios, añade, incluso se acaban trasladando a la Ley y la de Medio Ambiente del País Vasco recoge la obligación de los titulares de los focos de contaminación de adoptar las medidas necesarias para evitarlos. Por otro lado, como alguno de los miembros del partido socialista presente en la Sala ha manifestado a los medios de comunicación, la respuesta de la Diputación no le parece suficiente. Por ello, y porque en última instancia tampoco “se pide la luna”, es por lo que su grupo ha presentado esta moción, que lo que pide es que la Diputación de Gipuzkoa, en la medida de lo posible, minimice o elimine, que sería lo deseable, una situación en la que los personas claramente perjudicadas son los vecinos de la zona.

* Peña andreak (EAJ/PNV) esan du mozioaren alde egingo duela. Beretzat bidezkoa da Udalbatzak bizilagunen interesen aldeko jarrera hartzea. Gaineratu duenez, kasualki bederen,

* La Sra. Peña (EAJ/PNV) manifiesta que va a apoyar la moción. Entiende correcto que esta Corporación se posicione en defensa de los intereses de los vecinos. Añade que hoy, causalmente, ha



C.I.F. P-2007200-E Herriko Plaza z/g. • Tfnoa: 943 449601 - Fax 943 449650 • 20100 ERRENTERIA(Gipuzkoa) • www.errenteria.net

komunikabideetan azaldu da zarataren aurka neurriak hartzea ez dela Aldundiak bazterrean utzitako kontu bat, baizik eta Errenteriako Udala dela, gehien ukituriko udalerri bat denez, gaiaren inguruan gehien eragiten ari dena. Hortaz, mozioa bidezkoa ikusten du eta berorren alde egingo du.

aparecido en los medios de comunicación que el establecimiento de medidas antirruido no es un tema que la Diputación haya dejado de lado, sino que el de Errenteria, al ser uno de los municipios más afectados, es el que más está incidiendo en ese tema. Por lo tanto, considera adecuada la moción y la va a apoyar.

* Acosta jaunak (Socialistas Vascos-Euskal Sozialistak) adierazi du mozioaren edukia nolakoa den ikusi ondoren, mozioaren alde egingo dutela.

* El Sr. Acosta (Socialistas Vascos-Euskal Sozialistak) manifiesta que, visto el contenido de la moción, su grupo va a apoyarla.

Mintzaldiak amaitutakoan.

Finalizadas las intervenciones.

Udalbatzak, aho batez,

El Pleno de la Corporación, por unanimidad

**E R A B A K I D U**

**A C U E R D A**

- **Onartzea** Ezker Batua-Berdeak Lartzabal auzoan zarataren aurkako pantailak jartzeari buruz aurkezturiko mozioa, hain zuzen akordioaren azalpen-zatian jasota geratu dena.

- **Aprobar** la moción presentada por Ezker Batua-Berdeak sobre pantallas antirruido en el Barrio Lartzabal que queda reflejada en la parte expositiva del presente acuerdo.

------------------

--------------------

* Jarraian, atxiki gabeko zinegotziek presazko prozedura baliatuz aurkeztu nahi duten mozio baten inguruan eztabaidan aritu dira. Mozioa lan-istripu gisa epaiak aitorturiko kasuak ikertzeko batzorde bat sortzeko zen. Proposatzaileek, azkenean, hainbat udal taldeek eskatuta, atzera egin dute xehetasun gehiagorekin aurkezteko asmoz.

* A continuación se produce un debate sobre una moción que los Concejales no Adscritos quieren presentar por el procedimiento de urgencia, relativa a la creación de una comisión de investigación de los casos declarados mediante sentencia judicial como accidente de trabajo, que finalmente es retirada, a petición de otros grupos, por los proponentes con la intención de presentar otra con más detalle.

**15. Galderak eta eskariak.**

* Merino alkate jaunak (Socialistas Vascos-Euskal Sozialistak) esan du berak osoko bilkuran jarraituko duela zinegotziek hala nahi izanez gero, baina gogoratu behar dute Eskulangintza Azokaren inaugurazioa dutela, eta horretarako, ziur aski, zain

**15.- Ruegos y preguntas.**

* Toma la palabra el Alcalde, Sr. Merino (Socialistas Vascos-Euskal Sozialistak) y manifiesta que él seguirá en el Pleno si así lo quieren los concejales, pero que deben recordar que hoy es la inauguración de la Feria de Artesanía y que



C.I.F. P-2007200-E Herriko Plaza z/g. • Tfnoa: 943 449601 - Fax 943 449650 • 20100 ERRENTERIA(Gipuzkoa) • www.errenteria.net

edukiko dituztela. Hortaz, uste du, itxaron arazten badie, gaizki geratuko direla. Arrazoi horregatik, bilkura amaitutzat jo du.

posiblemente ya los estén esperando por lo que, como Corporación, quedarían en mal lugar si los hicieran esperar más. A continuación, y por ese motivo, levanta la sesión

------------

-----------

Eta aztertu beharreko gai gehiagorik ez zegoenez, Alkateak bilkura amaitutzat eman du egun bereko 12:10 orduak zirela. Eta aztertutakoa eta erabakitakoa jasota gera dadin Akta hau egin dut Erkidego Autonomoko paper ofizialean, _____zenbakitik _____ra, eta nirekin batera Alkateak sinatu du. Egiaztatzen dut.

Y sin más asuntos de los que tratar, el Presidente levanta la Sesión, siendo las 12:10 horas del día de la fecha. Y para constancia de lo tratado y de los acuerdos adoptados, extiendo la presente Acta en los folios números ______ al ______ del papel oficial de la Comunidad Autónoma, firmando conmigo el Alcalde. Certifico.



C.I.F. P-2007200-E Herriko Plaza z/g. • Tfnoa: 943 449601 - Fax 943 449650 • 20100 ERRENTERIA(Gipuzkoa) • www.errenteria.net